

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Soziologiako Gradua

IKASTURTEA 2017-2018

Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa.

Egilea:

Iker Fernandez Amezaga.

Zuzendaria:

Gorka Moreno Márquez.

Leioa, 2018eko Maiatzaren 31a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

Laburpena. Esku artean daukagun lan hau Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketaren errealitatea aztertzea du ikerketa-xede nagusizat. Horretarako Getxo testuinguruarekin izan ditzakeen bereizgarrietan jarriko dugu arreta, eta fenomeno hau pairatzeko arriskuan daudenen errealitateari hurbilpen bat eskainiko dugu. Kontuan hartuz udalerrri mailan fenomeno honen inguruan dagoen informazio gabezia, datu sekundarioen ustiaketaren bidez eta zenbait adituen testigantza bidez saiatuko gara Getxoko errealitatearen gaineko ezagutza sortzen.

Hitz gakoak. Getxo, pobrezia, gizarte bazterketa, immigrazioa, gizarte ezberdintasunak.

Resumen. El presente trabajo tiene como objetivo principal el estudio de la pobreza y la exclusión social en el entorno de Getxo. Con tal fin se pondrá especial énfasis en las posibles diferencias que pueda tener Getxo con el entorno y ofreceremos una aproximación sobre la realidad social de los que están en riesgo de pobreza o de exclusión social. Teniendo en cuenta la escasez de información que hay acerca de este fenómeno a nivel local, el estudio se basará en diferentes datos secundarios y en el testimonio de expertos en la materia.

Palabras clave. Getxo, pobreza, exclusión social, inmigración, desigualdad social.

Abstract. The main objective of this study is to study poverty and social exclusion in the surroundings of Getxo. For this purpose, special emphasis will be placed on the possible differences that Getxo may have with the environment and will offer an approximation of the social reality of those who are at risk of poverty or social exclusion. Taking into account the scarcity of information about this phenomenon at the local level, the study will be based on different secondary data and the testimony of experts in the field.

Key words. Getxo, poverty, social exclusion, immigration, social inequality.

Aurkibidea

1. Sarrera	7
1.1. Lanaren aurkezpena	7
1.2. Ikerketaren Helburuak	8
2. Marko Teorikoa	9
2.1. Gerturapen kontzeptuala	9
2.1.1. Pobreziaren ikuskera modernoa	9
2.1.2. Pobreziatik, Gizarte Bazterketa. Ibilbide analitiko bat	11
2.1.3. Egungo zaugarritasuna, gizarte bazterketaren oinarria	13
2.2. Europatik EAE-ra. Datu eta adierazle zehatzen azterketa	15
2.2.1. Lehenengo gerturapena eta arazo metodologikoak	15
2.2.2. Europa. <i>AROPE</i> adierazlea	17
2.2.3. Espainia. <i>ECV</i> eta <i>AROPE</i>	19
2.2.4. Euskal Autonomia Erkidegoa. <i>PGEI</i> eta <i>AROPE</i>	22
2.3. Non kokatuko genuke 2018ko Getxo?	24
2.3.1. Hipotesiak	24
3. Metodologia	27
3.1. Diseinu Kuantitatiboa	28
3.2. Diseinu Kualitatiboa	28
4. Emaitzak	31
4.1. Sarrera. Getxoko testuinguru sozioekonomikoa eta pobrezia eta gizarte bazterketari sarrera.....	31
4.1.1. Testuinguru sozioekonomikoa	31
4.1.2. Pobrezia eta gizarte bazterketari sarrera	32
4.2. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, <i>auzoen</i> arabera	35
4.3. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, <i>generoaren</i> arabera	36
4.4. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, <i>Jatorriaren</i> arabera	39
4.5. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, <i>Profilak</i>	42
4.5.1. Adina eta ikasketa maila	43
4.5.2. Profilen tipologia proposamen bat	44
4.6. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, <i>pertzepzioa, neurriak eta politikak</i> ...	47
5. Ondorioak	51
Bibliografia	55
Eranskinak	59

1. Sarrera

"Pobrezia ez da naturala, gizakiak sortzen du eta gizakien ekintzen bidez gainditu eta desagerrarazi daiteke. Pobrezia desagerraraztea ez da inolako karitate ekintza, justizia ekintza baizik " **Nelson Mandela**

1.1. Lanaren aurkezpena

Gizarteek aberastasuna metatzen hasi ziren momentutik aurrera, hau da, nomadismoa baztertu eta sedentarismoan oinarritutako gizarteak sortu zirenetik aurrera, pobrezia eta bazterkeria gizartearen eskutik joan dira. Egun, zaila da pobrezia eta bazterketa egoerak pairatzen ez duten gizarte bat ezagutzea, eta beraz, testuinguru orotan presentzia duen fenomeno bat den heinean, gizarte zientzietan aztertu beharreko eremua bilakatzen da.

Getxo, ez da salbuespena izango. Egia da, pobrezia inguruan asko idatzi egin dela eta Getxo ez dela printzipioz, eta pobreziaz hitz egitean, eredurik nabarmenena. Are gehiago, zenbait ikerketen arabera, Getxok estatu espainoleko pobrezia egoera pairatzeko arriskuan daudenen tasa baxuena aurkeztu du, %8,3a, hain zuzen ere, 6500 pertsona inguru (AIS group, 2015). Hala ere, ez da nahikoa mota honetako datu bat errealitate zehatz bat ezagutzeko. Era berean, horrelako errealitate batek eta azaltzen dituen bereizgarri hauek interesgarria egiten dute herri honen pobrezia inguruko azterketa sakonago bat egitea.

Ikerketa makro hauen bitartez ez da eremu zein testuinguru jakin baten errealitatea era sakon batean ezagutzen. Gainera, ikerketa makroak izanik, herri ezberdinen arteko konparazioa du azkeneko helburutzat. Kasu honetan, Getxon pobrezia zein bazterketa egoera pairatzen dutenei, ez die inolako mesederik egiten pobrezia txikien duen herri gisa aurkeztea, hain zuzen ere, errealitatea bera estaltzen edo gutxiesten duelako.

Garrantzia handiago bat hartzen du era honetako ikerketa bat, non eta Getxon, kontuan izanda Getxok Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) batz besteko errenta pertsonal handienetarikoa duela, preseski, 27.261 euro (EUSTAT, 2015). Udallerri aberats bat izanda, biztanleriaren %8,3a pobrezia egoera pairatzeko arriskuan egoteak aberastasunaren banaketa desegoki bat dagoela esaten digu.

Geroago ikusiko dugunez, gero eta nabarmenagoa da Europako kideen arteko politiken unifikaziorako joera. Horren adibide da AROPE adierazlea, Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Europako Sarearen barruan (EAPN, European Anti Poverty Network) erabiltzen den adierazlea alegia. Hauek, baliagarriak izanik eta kontuan hartuta ikerketa honetan erabiliko direla, ezinbestekoak dira maila lokalagoan errealitate hurbilaren irakurketa eta ekintza bideratzea. Horrek bete-betean ikutzen ditu udallerriak eta, baita ere, elkarte lokalak. Horregatik hain zuzen ere saiatuko gara eremu guzti horiek kontuan hartzen ikerketa garatzerako orduan.

Beraz, eta dauzkagun baliabideak eta mugak ezagututa, Getxoko pobrezia eta bazterketa inguruko errealitatea era sakonago batean ezagutzea izango da gure helburu nagusia, beti ere, testuinguruarekin izan ditzakeen bereizgarriak azpimarratuz. Horretarako lehenik eta behin marko teoriko bat aurkeztu dugu. Marko teorikoaren lehenengo zatian fenomeno honen azterketaren bilakaera bat aurkitu dugu, bigarren zatian Getxo pobrezia eta gizarte bazterketari dagokionez, bere testuinguruan kokatzen Saiatu gara eta hirugarrenenean, behin jakintza oinarri

bat sortua, Getxoren inguruan hasiera batean plazaratutako hipotesiak izango ditugu. Behin ikerketak izango duen marko teorikoa zehaztuta, metodologia atalean ikerketa nola gauzatuko den definituko dugu, horretan erabiliko ditugun teknikak zehaztuz. Metodologia behin definituta, landa lanaren bidez lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu hurrengo atalean ondorio orokorrekin bukatzeko asmoz.

Sarrerarekin bukatzeko, esan beharra dago lan hau funtsezko premisa batetik abiatzen dela, niri pertsonalki betidanik kezkatu nauena, eta ikerketa hau egitera bultzatu didana: Nola da posible, aberastasun handiko lurralde batean, pobrezia fenomenoaren presentea egotea? Eta, kontuan izanda eremu aberatsetan pobrezia eta gizarte bazterketa normalizat hartzen dela, ez gara egongo sistema erratu baten aurrean? Galdera honi erantzun ahal izateko, ondorengo helburuen bidez lantzea onetsi dugu.

1.2. Ikerketa Helburuak

Lan honen **helburu orokorra**, eta beraz lan honen ikergaia, hurrengoa da:

H0. *Getxoko pobrezia eta bazterkeriaren inguruko errealitatea aztertzea, herri honek bere testuinguruarekin izan ditzakeen bereizgarriak azpimarratuz.*

Zehaztutako helburu orokorraren osotasunari irtenbide bat emateko asmoz, hurrengo **helburu espezifikokoak** zehaztu ditugu ikerketaren urratsak eta norabidea definituko dutenak:

H1. *Getxoko errealitate sozio-ekonomikoak inguruko herri zein EA Erekin izan ditzakeen bereizgarriak aztertu.*

H2. *Getxoko auzo ezberdinen arteko aldeak aztertu pobrezia eta gizarte bazterketari dagokionez.*

H3. *Generoaren arabera pobrezia eta bazterketa egoera aztertu*

H4. *Getxoko etorkinen eta bertakoen arteko aldeak ezagutu pobrezia eta bazterkeriari dagokionez*

H5. *Getxon pobrezia eta bazterkeria pairatzen dutenen profil ezberdinak detektatu*

H6. *Getxoko pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko dituen baliabide eta neurri ezberdinak aztertu.*

H7. *Hiritarrek Getxoko pobrezia eta bazterkeriaren inguruko pertzepzioa ezagutu*

2. Marko teorikoa

“Gizartea merkatu ekonomiara murriztu dezakegu, hau da, bizitza soziala maratoia bat da, gizabanako guztiek parte hartzen dute, baina askok orkatilan arazoak dituzte, edo bihotzekoak jasaten dituzte edo ez dute dirurik oinetakoak erosteko. Guzti hauek galduta daude, lasterketa galdu egiten dute. Honi pobrezia deritzo” **Alain Touraine**

2.1. Gerturapen kontzeptuala

Ondorengo lerroetan pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruko gerturapen teorikoa egingo da. Lehenengo zatian pobreziaren inguruko kontzeptuen inguruko zehaztapena egingo da; eta bigarrenean Europa zein EAEko pobreziaren inguruko datu zehatzak eskainiko dira. Honen bide gure ikerketa-eremua den Getxoko pobrezia hobeto ulertu ahal izateko, hain zuzen ere.

2.1.1. Pobreziaren ikuskera modernoa

Mendeetan zehar pobrezia existitu izan arren, ez da betidanik arazo sozial gisa identifikatu. Izan ere, modernitatea eta Ongizate Estatu mendebaldera ailegatu arte, hau da, gizarte aurre- industrialietan, gabezia materiala egoera nahiko orokortua zen. Pentsalari askok, pobrezia gizartearen berezkoa den ezaugarri moduan ulertu zuten, hala nola, Thomas Malthus-ek (1798) bere garaian pobreziaren beharrezkotasuna planteatzen zuen, hain zuzen ere, hazkunde demografikoak ez zuelako baliabideen hazkundearekin bat egiten, eta horrek, pobrezia ezinbestean sortzen zuen. Hurrengo esaldiak era egokian laburbiltzen du geroago filosofia malthusiana deituko dena:

“Jadanik okupatuta dagoen mundu batean jaiotako gizon bat, gurasoek ezin dietela elikatu eta gizarteak bere lana behar ez izatekotan, janari zati txiki bat ere erreklamatzeko eskubidea ez dauka (hain zuzen ere, gizon hori soberan da). Naturak, bere oparotasunean, ez dio lekurik gorde. Naturak mehatxatu du, eta bere mehatxua beteko du” (Pressat, 1977:16).

Ikuskera honen bitartez, begi bistan geratzen da, garaiko ikuskera ez duela egunekoarekin bat egiten. Pobrezia gaixotasun eran ulertu zen mendean zehar, ez zegoen konpontzeko erarik eta horrekin bizi behar zen. Ematen zitzaion erantzun bakarra erantzun erlijiosoak zen, karitatean oinarritutako erantzuna hain zuzen ere. Ondorioz, eta arazo moduan ulertu ez zen bitartean, agenda politikoan erabat baztertutako fenomenoak izan zen, eta beraz, ez zegoen neurtzeko eta kuantifikatzeko premiarik, “direnak dira” esaldiarekin konformatzen ziren.

Egoera erabat aldatu egin zen XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran. Garai honetan, industrializazioa garatuz joan zen, eta horrek mendebaldeko gizarteak goitik behera aldatu zituen. Denbora tarte honetan, pobrezia behatzeaz gain era sistematiko batean neurtzeko lehenengo saiakerak egin ziren, Londresen, Booth-en eskutik 1889 eta 1897 urteen bitartean (Atkinson, 1987). Booth-en lanetan Londres hiriarren pobrezia mapa bat aurkitu dezakegu, auzoka, gizartea klase ezberdinetan banatu zituen hurrengo argazkian ikusi dezakegun moduan.

1. Irudia: 1889. Urteko Londreseko Pobrezia-Mapa (Kolore gorri-horiai klase aberatsenak izango lirateke eta berriz, gris urdinak, pobreenak.)



Iturria: Atkinson (1987)

1901ean, eta Booth-en joera berdina jarraituz, Rowntree-k *Poverty: A Study of Town Life* (1908) lanean York-en egindako ikerketan erakusten digu hiri horretako biztanleen %27,84a pobrezia egoera batean bizi zela. Horretarako, gizabanakoen behar nutrizionaletan oinarritutako estandar bat erabili zuen (Atkinson, 1987). Ikerketa hauen emaitzak normaltasunez bizitzen zen errealitate bat plazaratu zuten iritzi publikoan.

Industrializazioak, Europan, ongizate handiago bat eskaintzeko ahalmena erakutsi zuen, behintzat biztanle kopuru handiago bati, eta horrek bigarren ikuskera baten garapena ahalbidetu zuen. Hain zuzen ere, pobrezia desagerrarazi daitekeen fenomeno sozial moduan ulertzen hasi zen. Ibilbide horretan, Estatuak gizarte politiken bidez pobrezia aurre egin zezaketen. Batez ere, nagusitasun handia lortu zuen ikuskera hau Bigarren Mundu Gerra geroztik, eta Ongizate Estatuekin batera.

Ikuskera honen adierazle argia da Rowntree-k erakusten digun baikortasun absolutua, oraindik ere Ongizate Estatuaren sorrera gauzatu ez zenean:

“Malthusian filosofiaren itzal ilunak iraganari dagozkio, eta ez da gauzen azken egoerari buruzko ikuskerarik onartuko, baldin eta gizon eta emakume ugari kondenatzen badira bere izaeraren zatirik garaienak suntsitzeko” (Rowntree, 1908:305).

Rowntree-k zeukan ikuskera baikorra XX. mendean zehar mantendu egin zen, baita indartu ere. Ikusmolde honen aburuz, ekonomiaren garapenarekin batera eta Estatuaren esku hartzearekin, ez zegoen zertan pobrezia mendebaldeko gizarteetan existitu behar.

Bigarren ikuskera hau 60ko hamarkadaren amaieran kolakan jartzen hasi zen. Izan ere, “60ko hamarkada arte pobrezia inguruko ikerketak bigarren maila batean kokatu ziren” (Moreno, 2007:27). Ongizate Estatuak euren funtzioak betetzen zituzten bitartean eta datu makroekonomiak etengabeko hazkundea erakusten zuten bitartean ez zegoen zertaz kezakerik. Esan bezala, 60ko hamarkadaren amaieran pobrezia inguruko azterketak ugaritu egiten dira eta estalita mantentzen zen errealitatea biluzten hasten dira (Moreno, 2007).

Pobrezia ikuskera baikorra erabat ikututa geratuko da 70ko hamarkadaren krisiarekin batera. Honek hirugarren ikusmolde bati irekiko dio bidea, hain zuzen ere, “pobrezia berriaren” agerpena eta batez ere, pobrezia fenomenoak mendebaldean hartuko duen zentraltasunari irekiko dio bidea. Garai honetan lan asko argitaratu ziren, pobrezia inguruko ilusioa, alegia, pobrezia bukatu daitekeen fenomeno sozial gisa ulertzea, gainditzen zutenak, horien artean lehenetarikoa Townsend izan zen. Honek beste datuen askoren artean, ondorioztatu zuen Erresuma Batuetan 13 milioi pertsona (55 millioietatik) pobrezia eremuan bizi zirela (Townsend, 1979:893).

70 eta 80 hamarkadetatik aurrea pobrezia erabateko zentraltasuna hartuko du, batez ere Europan gizarte zientzien azterketen barruan. Jarraian ikusiko dugunez, pobrezia ulertzeko era guzti hauek, eta garaian garaikoa, pobrezia neurtzeko eta definitzeko era ezberdinetan izan dute emaitza. Hurrengo atalean pobrezia zein gizarte bazterketa kontzeptuen bilakaera analitiko bat ikusiko dugu, eta bukatzeko lan honetan erabiliko dugun eredia zehaztuko dugu.

2.1.2. Pobreziatik, Gizarte Bazterketara. Ibilbide analitiko bat.

Aurreko zatian esan bezala, garai eta testuinguru historikoak pobrezia ulertzeko eta definitzeko erak baldintzatu egin ditu. Gainera, pobrezia definitzeko era ezberdinek pobrezia bera neurtzeko eskemetan ere izan du eragina. Beti lez, ikuspuntu ezberdinak garatu egin dira pobrezia neurtzerako orduan, interes eta ideologia zehatz batzuen eraginpean.

70ko hamarkada geroztik, mendebaldeko gizarteetan, pobrezia auzia zentraltasun eta garrantzia handiago bat eskuratzen joan zen. 1974ean lehenengo aldiz agertzen da gizarte bazterketa, kontzeptu moduan, Frantziar testuinguruan eta R. Lenoir-en eskutik *Los Excluidos* izeneko lanean. Hala ere, 90ko hamarkadararte ez du benetako presentzia lortuko kontzeptu analitiko gisa (Autes, 2004). Apurka-apurka gizarte bazterketa, pobrezia kontzeptua gaindituz joango da, hau da, pobrezia inguruko ikerketak berenganatuko ditu eta azterketa eremua handituko du.

Egun gizarte bazterketa dituen esanahien artean, eta kontuan hartuz definizio eta ikuskera ezberdinak daudela, oinarri komun batzuk nabarmendu daitezke pobrezia kontzeptu klasikoetik bereizten duena. Izan ere, bi dimentsiotik edaten duen kontzeptua da esku artean daukaguna. Alde batetik, pobrezia ikuskera klasikoa, gabezia materialetan oinarritzen dena eta bestetik, gizarte bazterketaren ikuskera Frantsesa, bazterketa kulturean zentratzen dena (Silver eta Miller, 2003). Azken finean, gizarte bazterketa kontzeptuaren inguruan dagoen oinarritzko ideia da pobrezia esanahia berenganatu egiten duela, baina aldi berean ordura arte kontuan hartzen ez ziren hainbat dimentsio gehitzen dituela, gizartearen eraldaketak berak eskatzen dituen (Moreno, 2007). Jarraian aurkezten dugun taula pobrezia eta gizarte bazterketa kontzeptuen arteko alderik nabarmenenak islatzen ditu:

1. taula: Pobrezia eta gizarte bazterketaren arteko aldeak

POBREZIA	GIZARTE BAZTERKETA
Dimentsio bakarra (ekonomikoa)	Dimentsio anizduna
Izaera pertsonala	Izaera estrukturala
Egoera bat	Prozesu bat
Goian-behean	Kanpoan-barruan
Estatikoa	Dinamikoa
Gizarte industrial tradizionalak	Gizarte postindustrialak
Norbanakoak	kolektiboak

Iturria: Tezanos (1999)

Hala ere, gizarte zientzietan hain komuna den arazo batekin egiten gara topo, alegia, gizarte bazterketa ez du esanahi homogeen eta bakarra. Hasierako lanetatik gaur arte bilakaera bat egon da, eta definitzeko eta ulertzeko era ezberdinak egon dira, baita egun ere. Honek arazo bat dakar oinarrian, izan ere, askotan errealtate zeharo ezberdinak sartzen ditugu kontzeptu bakar baten babesean (Castel, 2004). Arazo hori saihesteko, gizarte bazterketaren ikuspegi ezberdinak azaltzen saiatuko gara, geroago lan honetan erabiliko den zentzua zehazteko.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, gizarte bazterketaren esanahia hainbat autore klasikoan obretan topatu ditzakegula, adibidez, Durkheim-en *anomia* kontzeptua gizabanakoen arteko lotura soziala hausteari egiten dio erreferentzia. Beraz, eta nahiz eta ideia berria ez izan, testuinguru zehatz batean sortutako kontzeptua da eta ondorioz ezaugarri espezifikoak ditu. Gainera, Lenoir-ek, gizarte bazterketa lehen aldiz erabili zuenetik, irakurketa eta erabilpen ugari egin dira kontzeptu berdinetik abiatuz. Hilary Silver-ek (1994) hiru paradigmatan laburbiltzen ditu gizarte bazterketaren inguruan egindako irakurketak, hain zuzen ere, paradigma bakoitza filosofia politiko batera lotua. Errepublikanismoa (frantziar errepublikanismoa bereziki) solidaritatearen paradigma, Sozialdemokraziatik (Europatik, hain zuzen ere) espezializazioaren paradigma, eta azkenik, liberalismoa (eta Estatu Batuetatik batez ere) monopolioaren paradigma.

Ikusi dezakegunez, teoria politiko ezberdinek eragin zuzena izan dute gizarte bazterketa aztertzerakoan. Hala ere, guk bi hurbilketa nabarmenduko ditugu ia antagonikoak direnak eta errealtate ezberdinak irudikatzen dutenak. Lehenengo hurbilketa, europarra, gizarte bazterketa, marjinazioa, gizarte kohesioa edota solidaritatea bezalako terminoetan oinarritzen da (García Laso, 2003:23). Bigarrena, Estatu batuetan egindako hurbilketan datza. Kasu honetan, *underclass* deituriko kontzeptuan zentratutako azterketa da (Katz, 1993).

Gure azterketak, hurbilketa europarra hartuko du oinarri moduan, izan ere ezinbesteko premisa batetik abiatzen da egungo mendebaldeko gizarteetan presente dagoen gizarte bazterketa, hain zuzen ere, gure babes-sistemak dituen mugak. Muga hauek zeinbait kolektibo, eta bereziki zeinbait egoera, bazterretan uzten ditu eta ez da gai egoera horiek babesteko. Beraz, eta kontuan hartuz egungo mendebaldeko gizarteetan baliabide nahikoak daudela, arazoa ez da norberarena edo kolektibo zehatz batzuen, estrukturala baizik. Ez da bidezkoa, arau orokorra moduan, *pobreziaren kulturaz* hitz egitea (Harris, 1991:325), *underclass* kontzeptuak adierazten digun moduan.

Behin ikusita gizarte bazterketaren inguruan dauden eztabaidak eta hurbilketak, zenbait definizio planteatuko ditugu, hurrengo atalean gure definizio propioa, gure errealtateari erreferentzia egiten diona, osatzeko asmoz.

Azterketa honetan, gure aburuz gizarte bazterketak bildu behar dituen hiru elementu azpimarratuko ditugu. Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da gizarte bazterketak duen jatorri *estrukturala*. Bigarrenik, gizarte bazterketak izan beharreko izaera *multidimentsionala*. Eta, hirugarren oinarritzko elementua, prozesu *dinamiko* baten moduan aztertzea (Laparra, 2001). Hiru elementu hauek ezinbestekoak dira gizarte bazterketaren dimentsioak ulertzeko, eta lan honetan oinarritzkoak izango dira gizarte bazterketa prozesuak ulertzeko.

Garrantzitsua da, kontzeptua bera aztertzeaz gain, kontzeptuak berak duen eragiteko eremuak edo dimentsioak zeintzuk diren identifikatzea. Hau da, gizarte bazterketa pairatzen dutenen artean zein dimentsio dira horrelako joerak pairatzea eragiten dutenak. Prozesu dinamiko eta

konplexua izanda ere, dimentsio hauen gainean nolabaiteko adostasuna garatu da Europa mailan (Laparra eta besteak, 2007), eta hurrengo taulan laburbilduta agertzen dira:

2. taula: Gizarte bazterketaren dimentsioak

Dimentsio ekonomikoa	Ekoizpenean parte hartzea	Soldatarekiko bazterketa Lan merkatuan ez aritzea
	Kontsumoan parte hartzea	Pobrezia ekonomikoa Pribazioa
Dimentsio politikoa	Hiritartasun politikoa	Eskubide politikoetarako sarbide eraginkorra. Abstentzioa eta pasibotasun politikoa
	Hiritartasun soziala	Gizarte babesen sistemarako sarbide mugatua: osasuna, hezkuntza, etxebizitza, errenta berma ...
Dimentsio soziala (harremanak)	Gizarte harremanen gabezia	Gizarte isolamendua, babes sozialen gabezia
	Gizarte harreman gatazkatsuak	Gizarte gatazka

Iturria: Laparra eta besteak (2007)

Beraz, eta gizarte bazterketa osatzen edo gauzatzen duten dimentsioak identifikatu ostean, logikoa da pentsatzea gero eta gabezia handiagoak pairatu eremu edo dimentsio ezberdinetan, orduan eta integrazio arazo handiagoak edukiko dituztela gizabanako zein kolektibo ezberdinak. Kasu honetan, Laparrak eta besteak (2007) aurkezten diguten eskema, sinplea izan arren, gizarte bazterketa pairatzen dutenen artean eragina duten hiru dimentsio nagusiak identifikatzen laguntzen digu.

2.1.3. Egungo zaugarritasuna, gizarte bazterketaren oinarria.

Aurreko ataletan aurreratu den moduan, pobrezia azterketan bilakaera sakon bat mamitu da XX. mendean zehar. Pobrezia era estatiko batean eta egoera zehatz batean diru sarreren gabezia moduan ulertzetik, gizarte bazterketa prozesu moduan eta faktore anitza dituen fenomeno moduan aztertzerara pasatu gara. Horrek eragin zuzena du pobrezia eta gizarte bazterketa fenomenoaren kontrako politikak abiatzerakoan. Izan ere, gizarte dualaren paradigmatik, non pobrezia gizartearen gehiengotik bereiztuta dauden kolektibo bako bako ez die eragiten, erabat heterogeneoa den espazio batera igarotzen gara (Subirats, 2004; 2006). Espazio

hauek, geroago sakonduko dugun moduan, integrazio eta bazterketaren arteko *continuum* batean kokatuko dira.

Hala ere, lan honetan, XX. mendearen amaieran eta XXI. mendean zehar egindako zenbait ekarpen gehitu nahi diogu aurreko ataletan egindako ibilbide analitikoari. Alegia, beharrezkoa ikusten dugu *zaugarritasun* eta *continuum* kontzeptuetan sakontzea eta gure marko analitikoari gehitzea. Esan bezala, gizarte dualaren paradigmak irudikatzen duen gizartea errealitate osoaren zati bat baino ez du ordezkutzen. Egungo gizartean gauzatzen diren pobrezia eta gizarte bazterketa prozesuak askoz heterogeneoak eta konplexuagoak bilakatu dira eta ondorioz, integrazio eta bazterketaren artean dauden mugak askoz lausoagoak agertzen zaizkigu. Horrek, ezinbestean, erabiltzen ditugun kontzeptuen gaurkotzea eskatzen du, eta horretan saiatuko gara.

XXI. mendearen amaieran hainbat autore izan ziren *continuum*-aren irudiaren beharrezkotasuna identifikatu zutenak, integrazio/bazterketa analisi dikotomikoa apurtzen zuena (Castel, 1992; Tezanos, 1998; Aguilar, 1998). Gizarte bazterketa pairatzen zutenek edo pairatzeko arriskuan zeudenek eremu askoz heterogenoago batean mugitzen ziren, eta ondorioz ez zen nahikoa integratuen eta baztertuen arteko bereizketa dikotomikoa. Integrazioaren hiru esparru bereiztu zituzten, integrazioaren esparrua, zaugarritasunaren esparrua eta bazterketaren esparrua. Esparru hauen arteko mugak nahiko muga lausoak dira eta batetik bestera igarotzeko arriskua gero eta nabarmenagoa da.

Ikerketa honetan tarteko esparruan jarriko dugu arreta handiena, izan ere, eta hipotesi moduan, Getxoko gizarte bazterketaren eta pobrezia errealitaterik handiena eremu horretan aurkituko dugu, eta gainera zehaztugabe eta, askotan izkutaturik mantentzen den eremua da. Zaugarritasuna kontzeptu analitiko moduan bi ikuspegitan aurkitu dezakegu (Pizarro, 2001): Lehengoa, eta erabilera klasikoena, hondamendi naturalen aurrean gizabanakoak duen zaugarritasunari egin dio erreferentzia; eta bigarrena, guri interesatzen zaiguna, gizabanakoaren zaugarritasun soziala sistema ekonomiko, politiko eta sozialaren aurrean da. Beraz, definizio moduan, zaugarritasun esparrua kolektibo zein indibiduo prekariora edo ezegonkorak osatzen dute, integrazio erlatibo bat garatu dutenak, baina era ezegonkor batean, ondorioz, ez bermatutako integrazioa eta berehalako etorkizun argirik gabe izango litzateke (Laparra eta Aguilar, 1999: 189)..

Aurretik esan bezala, eremu honetan mugitzen direnak erabat heterogeneoa den taldea osatzen dute, gainera, iritzi publikoak pobrezia edo gizarte bazterketaren inguruan duen imajinarioa ez du bat egiten heterogenotasun honekin. Esan beharra dago, eta *continuum*-aren ideia berreskuratuz, intentsitate ezberdinaz osatutako errealitate batez ari garela (Moreno, 2007:34). Zaugarritasunak, eta horrek dakarren testuinguru ezegonkorak, ez dio biztanleriaren gehiengoari egonkortasun absoluturik bermatuko. Zaugarritasun soziala gero eta eremu zabalago batean eragiten du, bereziki, gazteetan, emakumeetan eta etorkinetan. Hala ere, nahiz eta, zaugarritasunaren hazkundera gero eta eremu gehiagotara hedatu, gizartearen zeinbait egiturek zaugarritasun hori sostengatzera laguntzen dute. Egitura horien eredu argiena familietan aurkitu ditzakegu, alegia, familiak koltxoi gisa betetzen duten papera. Espainiaren kasuan, eta Ongizate Estatuaren gabeziak kontuan izanda, "eredu familiaristak" garatu izan dira (Esping-Andersen, 1993) gizarte bazterketari topea eta babesa ematen diotenak.

Azken hamarkadetan gertatu den zaugarritasunaren gorakada hau, autore askok, lanak zuen funtzio sozializataile eta integratzailearen galerari leporatu diote. Izan ere, Ongizate Estatuaren hazkunde garaian, enpleguak nolabaiteko egonkortasuna eta integrazioa bermatzeko ahalmena zeukan, egun hein handi batean galdu duena. Hare gehiago, askotan enpleguak bazterketa prozesuak indartu dezake lan baldintza okerretan eta prekarioetan egiten bada, ez baitu aukerarik ematen egoera horretatik ateratzeko eta egoera kronikoa bihurtzeko arriskua daukelako (Moreno,2007: 39). Ondorioz, ezin dezakegu jada enplegua integrazio adierazle moduan erabili ez duelako gizarte bazterketaren eta pobreziaeren errealitatea era egokian islatzen.

Beste elementu batzuk ere zaugarritasun horren hedapenean lagundu dute, hala nola, familia eredu berrien garapena edo etorkinen gorakada. Gizartea eraldatzen doan heinean gizartea arautzen duten instituzio publikoek, eta kasu honetan gizarte zerbitzuek, ez dira errealitate berriek eskatzen dituzten beharrei erantzuteko gai. Gizarte zerbitzuek zailtasun handiak dituzte, adibidez, familia eredu berriei erantzun egokiak bermatzeko, ez bait da berdina familia tradizional bat duen beharrak edo familia eredu berriek dituzten beharrak.

Atal honekin bukatzeko, beharrezkoa ikusten dugu azpimarratzea zaugarritasun sozialaren kontzeptua nahiko erabilgarria dela guk eskuartean daukagun objektua aztertzerako orduan. Hau esanda, gizarte bazterketa kontzeptuari gehigarri moduan erabiliko dugu, egoera zehatz batzuk era egokiago batean islatzeko asmoz. Izan ere, gero eta garatuago dagoen fenomeno bat izanda, aditu beharreko eremua bilakatu da.

Laburbilduz, lan honetan zehar erabiliko dugun marko analitikoak gizarte bazterketan oinarrituko da, aurretik aipatutako elementuekin, pobreziaeren dimentsio ekonomikoak baztertu gabe eta zaugarritasun sozialak egungo gizarteetan duen presentzia kontuan izanda. Gainera, fenomeno dinamiko eta konplexu bat den heinean ezinbestekoa izango da *continuum* eran gauzatzen den errealitatea moduan aztertzea.

2.2. Europatik EAE-ra. Datu eta adierazle zehatzen azterketa

2.2.1. Lehenengo gerturapen bat eta arazo metodologikoak

Aurreko ataletan azaldu dugun moduan, gizarte bazterketa kontzeptuak XX, mendearen amaieran izandako eraldaketa sozial eta ekonomikoetan izan du oinarria. Zaharkitze demografikoa, lan prekarietate, zaugarritasunaren hedapena, eta nola ez, politika neoliberalek ahalbidetutako Ongizate Estatuaren berregituraketak gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden gizabanako kopurua handitzeak ekarri du. Joera hau krisi ekonomikoak indartu egin du, kolektibo askoren egoera okertuz eta pobrezia edo gizarte bazterketa pairatzeko arriskua kolektibo eta gizabanako gehiagori zabalduz. Gainera, gizarte bazterketak, egoera horri erreferentzia egiten zuten kontzeptu tradizionalagoak ordezkatzeko joera hartu du, alegia, klase baxuak edota marjinatuak. Hauek, kutsu ideologiko handiagoko kontzeptuak izanik, Europak baztertu egin ditu gizarte bazterketaren mesedetan.

Lan honetan, kontuan izanda kontzeptuek atzean duten interes eta kutsu ideologikoak, maila instituzional eta ofizialean erabilitako pobrezia-irudi buruzko datu eta adierazleak kontuan hartuko ditugu, izan ere, ahalmen konparatibo handiagoa eskaintzen digute. Beraz, eta mugak ezagututa,

Europa 2020 (EU2020) estrategiak, pobreziaen aurkako borrokaren barruan, zehaztutako adierazle nagusia hartuko duzu hizpide, AROPE (At Risk Of Poverty and/or Exclusion, eta aurrerantzean, arope) hain zuzen ere.

Arope adierazlea Europak 2010ean krisi ekonomikoari aurre egiteko bultzatutako strategiaren (EU2020) barruan kokatu behar dugu. Europako estatuek bost helburuen inguruan hartutako konpromezua litzateke, horien artean, pobrezia eta bazterketaren aurkako borroka. Helburu honen muina gizarte zein lurralde kohesioa bermatzea da eta horretarako pobrezia egoera pairatzeko arriskuan dauden kopurua 20 millioira jaisteko konpromezua hartzen du Europak (Europako Batzordean 2010: 10).

Pobrezia eta gizarte bazterketa kuantifikatzeko asmoz, eta kontuan izanda aurreko ataletan azpimarratu dugun fenomeno honen dimentsio anitzak, arope adierazlea erabiltzen da EU2020 strategiaren barruan. Beraz, arope adierazlea, fenomenoaren izaera anitzari erantzuteko sortutako adierazlea da, eta horretarako hiru azpi-adierazle erabiltzen ditu: *pobrezia erlatiboa*, *gabezia material larria* eta *intentsitate baxuko lan jarduera*.

Pobrezia erlatiboaren indizea: _pobrezia erlatiboaren arriskuan dauden ehunekoak, kontuan hartuz pobreziaen atariaren azpiko diru sarrerak dituen etxebizitza batean bizitzen direnak (Estatuaren diru sarreren medianaren %60ko ataria).

Gabezia material larriaren indizea: *Baliabide* gabezien ondorioz euren bizitzan eragina duten pertsonen ehunekoak, Europar Batasunean komunak diren 9 itemetik behintzat 4ren gabezia dutenak. (etxebizitzaren ordainketetan atzerapenak, etxebizitzaren temperatura egokia, ustekabeko gastuak ordaindu ezina, oinarrizko elikagaiak, oporrak, kotxea, garbigailua, TV eta telefonoa).

Intentsitate baxuko lan jardueraren indizea: lan egiteko adinean dauden artean lan jarduera txikia edo nulua dauzkaten etxebizitzetan bizitzen diren pertsonen ehunekoak, kontuan hartuz bakoitzaren lan potentzialtasunaren %20 azpitik, urte oso batean, lan jarduera txikia dela.

Esan genezake arope adierazleren alderik hoberena beste adierazle batzuk baino eremu anitzagoak kontuan hartzen dituela dela, horrela gizarte-bazterketaren beste dimentsio batzuk barne biltzen dituelarik. Hala era, mugak azaltzen ditu ere. Hauen artean hiru nabarmendu nahi ditugu lan honetan, izan ere, ezinbestekoa da erabiltzen ditugun adierazle eta kontzeptuen mugak ezagutzea eremu horietan arreta berezia ezartzeko. Zenbait autoreek egindako lehenengo kritika dimentsio tenporalean duen zehaztasun falta izango litzateke, eta horrek suposatzen duen ekintzarako ahalmen txikiagoa. Arazoa indize ezberdinen denbora ezberdinetan oinarritzen da, izan ere, etxebizitza ezberdinen lan jarduera inkestaren aurreko urteari egiten dio erreferentzia eta berriz, item ezberdinen kontsumoa inkestaren urteari egiten dio erreferentzia. Honek ez digu ematen datuak momentuan eskuratzeko ahalmena, krisi garaian bereziki (Laparra, 2010; Nolan eta Whelan, 2011).

Identifikatutako bigarren arazoa, indizeek objektu ezberdinei egiten diotela erreferentzia daukagu. Hain zuzen ere, lan jarduera baxuak populazio aktiboa baino ez du aztertzen, eta berriz beste biek populazio osoa hartzen dute kontuan (Ward eta Ozdemir, 2013). Gainera, lan jarduera baxuko indizeak arazo bat du bere horretan. Kontuan hartu behar dugu lanak jada ez duela aurreko hamarkadetako integraziorako ahalmen berdina, eta beraz baliteke lan jarduera baxuak

ez dituen familia batean erabat prekarizatutako lan jarduerak nagusitzea (Nolan eta Whelan, 2011). Egia da ere, azken hamarkadetan lanak eraldaketa sakon bat jasan duela gizarte modernoetan, eta beraz lanaren funtzioaz eta izaeraz oraindik ere teoria eta gogoeta handiak dihardute.

Bukatzeko, hirugarren muga daukagu, eta lan honetan arreta berezia eskaini beharreko muga litzateke, zuzenean gure ikerketa objektuan eragiten duelako. Hirugarren muga erabilitako atarien inguruan da. Pobrezia aztertzen hasi zenetik jarraitzen duen eztabaida nagusienetako dugu era erlatiboan edo absolutuan neurtu beharreko fenomenoaren den. Arope-k pobrezia era erlatiboan aztertzen du herrialde bakoitzaren bizitza mailan oinarrituz, eta era absolutuan gabezia materialaz aritzean, hau da, herrialde guztietan biztanleek beharrezko dituzten gabezia zehatzak (adostutako zenbait item-en bidez). Lehengoari dagokionez, pobrezia erlatiboa, zenbait autore defendatzen dute beharrezkoa dela eskualdeko atariak erabiltzea, bereziki eskualdeen arteko ezberdintasun handiak erakusten dituzten herrialdeetan, mediterraneoko herrialdeak adibidez (Kangas eta Ritakallio, 2007). Adibide argia da gurea, ez bait du zer ikusirik EAEko errenta eta bizitza maila Andaluziarekin alderatuz. Seguruenik, EAEa Frantzia edota Ingalaterran kokatuko bagenu, arope biztanleria (arope adierazleak barne biltzen dituen biztanleria) askoz handiagoa izango litzateke. Hain zuzen ere, hori erakusten digu CIS-ean (Faura-Martinez; Lafuente-Lechuga; García-Luque, 2016 : 65) egindako ikerketa. Kasu honetan, pobrezia erlatiboa EAEn 2012an %12,6 batetik %21,7 batera igaroko zen eskualdeko atari erabilita. Hori da hain zuzen ere arope adierazlean aurkitzen dugun mugarik handiena, atariaren muga. EAEko arope adierazlea, Estatuko batz besteko errentekin aztertuz gero (kontuan hartuz errenta mailaren alde nabarmenak daudela) ez da errealitatearen isla egoki bat lortuko.

2.2.2. Europa, AROPE adierazlea.

Arope adierazlea, Europa mailan pobrezia eta gizarte bazterketa neurtzeko erabiltzen den adierazlerik nabarmenena izanda, estatuen arteko azterketa konparatibo bat garatzeko ahalmen handia dauka. Horretan arituko gara lehenengo hurbilpen honetan, geroago Estatu mailara jaitsiz eta, azkenik, Erkidego mailan sakonduz.

Europa mailan pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruan 2016-rarte izandako emaitzak eta EU2020 estrategiak eremu honetan ezarritako helburuak kontutan hartuz, esan genezake emaitza oso baikorrak ez dituela lortu. Hurrengo taulan (3.taula) ikusi dezakegu 2008tik 2016ra Europar Batasuneko estatuetan pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan daudenen ehunekoen bilakaera, alegia, arope adierazlea. Ikusi dezakegun moduan, 2007an hasitako krisi ekonomikoak eragin zuzena izan du, izan ere, 2012 topatzen ditugu arope tasaren balore handienak, salbuespenak ere topa daitezke.

3. taula: Europar Batasunean pobrezia edo gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden biztanleria, 2008-2016 (%)

	2008	2012	2016
Europar Batasuna (EU27-2013, EU28)	24,5	24,8	23,5
Belgika	20,8	21,6	20,7
Bulgaria	44,8	49,3	40,4
Txekiako Errepublika	15,3	15,4	13,3


Danimarka	16,3	17,4	16,5
Alemania	:	19,6	19,7
Estonia	21,8	23,4	24,4
Irlanda	23,7	30,3	24,2
Grezia	28,1	34,6	35,6
Espainia	23,8	27,2	27,9
Frantzia	18,5	19,1	18,2
Kroazia	:	32,6	27,9
Italia	25,5	29,9	30,0
Zipre	23,3	27,1	27,7
Letonia	34,2	36,2	28,5
Lituania	28,3	32,5	30,1
Luxenburgo	15,5	18,4	19,8
Hungaria	28,2	33,5	26,3
Malta	20,1	23,1	20,1
Holanda	14,9	15,0	16,7
Austria	20,6	18,5	18,0
Polonia	30,5	26,7	21,9
Portugal	26,0	25,3	25,1
Errumania	44,2	43,2	38,8
Eslovenia	18,5	19,6	18,4
Eslovakia	20,6	20,5	18,1
Finlandia	17,4	17,2	16,6
Suitza	16,7	17,6	18,3
Erresuma Batua	23,2	24,1	22,2
Islandia	11,8	12,7	:
Norvegia	14,3	13,4	15,4
Suedia	:	17,5	17,8
Mazedoniako Errepublika	:	50,3	41,1
Serbia	:	:	38,7
Turkia	63,9	61,3	:

Iturria: Eurostat (2016)

Arope tasa handienak erakusten dituzten herrialdeak Mazedoniako Errepublika (%41,1), Bulgaria (%40,4), Errumania (%38,8), Serbia (%38,7) eta Grezia (%35,6) dira, biztanleria osoaren herenetik gorako tasak dituzten herrialdeak. Espainiaren kasuan hamaikagarren posizioan, %27,9-rekin, topatuko dugu. Beste aldean, arope tasarik baxuenak dituzten herrialdeak ditugu, horien artean,

Holanda (%16,7), Finlandia (%16,6), Danimarka (%16,5), Norvegia (%15,4) eta, azkenik, Txekiar errepublika (%13,3).

1.grafikoa: Europako herrialdeen arope biztanleria 2016



Iturria: Egileak egina, Eurostat-eko datuekin (2016)

Errealitate zeharo ezberdinak identifikatu ditzakegu Europa mailan, alde batetik, Ekialdeko Europaren herrialde gehienak, beste aldean, Europako iparraldeko herrialdeak, eta hirugarren bat ere identifikatu dezakegu, hegoaldeko herrialdeetan topatzen dugun errealitatea –Mediterraneo aldea-.

- Ekialdeko Europa: arope tasa oso handiak dauzkaten bitartean, beherako joera erakusten dute azkenengo urteetan.
- Iparraldeko Europan: Nahiko tasa baxuak eta egonkorrak mantentzen dituzte.
- Europako hegoaldeko herrialdeak: Hauen artean Espainia, erdiko-goi multzoan kokatutako tasak topatzen ditugu, baina krisiaren ondorioz bereziki, goranzko joera erakusten dute.

Datuak ikusita ondorioztatu dezakegu krisia gehien pairatu duten herrialdeak Europako Hegoaldeko herrialdeak direla. Berriz, iparraldeko Europan ez dira pobrezia tasari dagokionez aldaketa handirik somatu. Nabarmentzekoa da, eta aurretik esan dugun moduan, EU2020 estrategiak ezarritako helburuen artean egoera hau pairatzen zutenen pertsona kopurua 20 milioira jaitea zela, eta kasu askotan jaitsi baino handitu egin da, hala nola, Grezia, Italia eta Espainia dira kasu argienak. Gainera, orokorrean, Europar Batasunean %1,3a baino ez da gutxitu.

Joera horretan aurkitzen dugu Europar batzordea (2013: 24) oraindik oso neurri eta politika mugatuak hartu direla pobrezia eta gizarte bazterketaren aurka egiteko esaten duenean. Gainera estatuen inplikazio eta esfortzu handiagoa eskatzen du adostutako helburuak lortzeko asmoz, bereziki zaugarriago diren kolektiboen aldeko politikan.


2.2.3. Espainia, *Encuesta de Condiciones de Vida* eta AROPE.

Behin Europa bere orokortasunean aztertuta, Espainiako lurraldeari eskainiko diogu arreta. Esan bezala, arope adierazlea, Europa mailan pobrezia eta gizarte bazterketa neurtzeko erabiltzen den adierazle komuna da. Espainiaren kasuan, arope-a *Instituto Nacional de Estadística*-k (INE) neurtzen du *Encuesta de Condiciones de Vida*-ren bitartez. Hurbilketa hau egiteko *European Anti Poverty Network ES* (EAPN) Espainian plazaratutako azkeneko txostenean oinarrituko gara (Llano Ortiz, 2017).

Hasi baino lehen esan beharra dago Espainiak ezarritako helburua, pobrezia eta gizarte bazterketari dagokionez, 2009-2019 hamarkadan pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan daudenen kopurua 1,4 eta 1,5 milioi pertsona bitartean jaitea izan zela (Programa Nacional de Reformas, 2011: 38). Arope adierazlearen bitartez ikusiko dugu erabateko porrota baten aurrean aurkitzen garela helburuei dagokionez, izan ere, jaitsi baino igo egin dira egoera horretan dauden pertsona kopurua

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, Espainia erdiko taldean kokatzen da arope adierazleari dagokionez, hegoaldeko herrialdeekin, krisiak gogor jo dituen herrialdeak izanik. Oraingoan arreta berezia eskainiko diogu Espainiak erakusten duen errealitateari. Horretarako, esan bezala, EAPN-ak argitaratutako azken txostenean oinarrituko gara.

2. Grafikoa: Espainiako arope-ren bilakaera 2004-2016 (%)



Iturria: Egileak egina, EAPN-ko datuekin (2017) (2008tik aurrera aldaketa metodologiko bat gauzatu zen)*

Lehenik eta behin, garrantzitsua da arope-k azken hamarkadan izandako bilakaera aztertzea, izan ere, horrek azken urteetako errealitatearen berri emango digu. Espainian, 2016. urtean, biztanleriaren %27,9a pobrezia edo gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan zegoen, alegia, 12.989.405 pertsona. Nahiz eta azken bi urteetan pertsona kopurua murriztu den, 2008tik 4,1 puntu igo da arope adierazlea. Horrek adierazten digu krisia baino lehenenagoko egoerara itzultzeko 2 miloi pertsonetan murriztu behar dela adierazlea, eta 800.000 gehiago EU2020 helburuarekin betetzeko (2.800.000 pertsona, hain zuzen ere). Begi bistakoa da, Espainiaren kasuan, krisiak erabateko astindua izan duela pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan daudenen artean.

Azkenengo urtearen arope adierazlea aztertuz ikusi dezakegu gizonezkoen (%28) eta emakumezkoen (%27,9) datuak antzekoak direla eta alde nabarmenenak adin taldeen arabera direla. 65 urte baino gehiagoko pertsonak dira tasa baxuenak aurkezten dutenak (%14,4) eta berriz, gazteak 16-29 urte bitartean arope tasa altuenak pairatzen dituztenak (%37,6). Datu orokorrekin bukatzeko esan beharra dago biztanleria atzerritarra, Europar Batasunetik kanpokoak hain zuzen ere, dela arope tasa altuenak pairatzen dituztenak (%60,1). Beraz, esan dezakegu Espainian pobreziaaren aurpegia gazte eta etorkinena dela era orokor batean hitz eginda.

Dakigunez, arope hiru elementuz osatutako adierazlea da, pobrezia erlatiboa, gabezia material larria eta intentsitate baxuko lan jardura. Hiru elementu hauen konbinaketa arope datua eskaintzen digute, baina komenigarria da elementu ezberdinak banan-banan aztertzea, kontuan


hartuz bakoitzak duen presentzia eta efektua. Orokorrean pobrezia erlatiboa da adierazlean pisurik handiena aurkezten duena. Nabarmendu behar da pobrezia eta langabeziaren arteko harremana es dela absolutua. Pobrezia egoera dauden artean, % 31,4 baino ez dago langabezian. Beraz, lanak jada ez dauka aurreko hamarkadetan pobrezia kontra ekiteko ahalmen berdina. Gero eta ohikoagoa da, esaterako, working poors -langile pobreak- fenomenoa, non enplegu bat izan arren pobrezia muga ez den gainditzen.

Pobrezia erlatiboa hurbilez aztertuz, ikusi dezakegu gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldeak txikiak direla, baina esan beharra dago, eta azken urteen bilakaera aztertuz, krisi garaian gizonezkoek izan direla hein handiago batean krisia gehien pairatu dutena. Hala ere, Krisia baino lehen eta krisia leuntzen den heinean emakumezkoak dira pobrezia tasa handienak dituztenak (lan merkatuan duten parte hartzearen ondorioz, gutxiago eragin die krisiak, behintzat datu absolutuetan). Berriz ere, 16-29 urte bitartean dira, adinari dagokionez kolektibo kaltetuena (%29,6a). Europatik kanpoko atzerritarren erdia baino gehiago (%52,1) pobrezia egoeran bizitze dira.

Gabezia material larriari dagokionez, berriz ere gazteak dira talderik handiena %8,4arekin. Nazionalitateak, oraingoan ere, erabakigarria agertzen zaigu, atzerritarren %20a delako gabezia material larriak dituztenak.

Bukatzeko, lan intentsitate baxuko etxebizitzak ditugu. Kasu honetan, sexua ez ditu alde adierazgarririk ematen. Berriz, adinari dagokionez, 45-64 urte bitarteko gizabanakoek dira egoera txarrean pairatze dutenak (%20, hain zuzen ere).

3.Grafikoa: Arope adierazlea Espainiako erkidego ezberdinetan



Iturria: INE (ECV 2016)

Espainiaren arope adierazlearen azterketarekin bukatzeko, lurraldeen araberako ezberdintasunak aztertuko ditugu. Izan ere, ipar hego ardatzaren araberako bereizketa argia ikusi dezakegu Espainiar lurraldean –Europar gertatzen den bezala-. Hala ere, Kontuan hartu behar dugu aurreko ataletan aipatutako arazo eta muga metodologikoak, bereziki muga atariaren muga. Izan ere, pobrezia ataria zehazteko Estatuaren batez besteko diru sarrerak hartzen dira kontuan, eta horrek distortsio handiak sortzen ditu. Adibidez, Estatuaren batz besteko errenta 10.708

eurokoa izan zen 2016an (eta arope-k erabilitakoa), EAE-koa 14.345 eurokoa eta Andaluziako, berriz, 7.600 euro ingurukoa.


Hala ere, egia da aldea nabarmenak direla iparraldeko lurraldeen eta hegoaldeko lurraldeen arabera. Nafarroa, Euskadi, Errioxa eta Katalunia arope tasa nabarmen baxuagoak erakusten dituzte Estatuaren batez bestekoarekin alderatuz. Berriz, beste aldean, Kanariak, Ceuta, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa ditugu.

2.2.4. Euskal Autonomia Erkidegoa, Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta eta AROPE.

Arope adierazlea, Europako estatu ezberdinen arteko konparaketan oinarritutako indikadorea edo neurgailua den heinean, zailtasunak aurkezten ditu lurralde edo eremu zehatzagoak aztertzerakoan. Hala ere, eta gure kasuan Euskadin, baditugu era konparatiboan erabili dezakegun adierazleak, batez ere Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestaren (PGEI, aurrerantzean) eskutik. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ateratako azkeneko PGEI-ren emaitzen txostenean (Eusko Jaurlaritza, 2017), Eurostat-ek erabilitako adierazleak erabiltzen, edo behintzat era konparatiboan aztertzen saiatzen dira. Beraz, PGEI-ren emaitzen inguruko azkenengo txostenean oinarritutako gara EAE-ko pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan daudenen errealitateari hurbilpen bat egiteko.

Lehenik eta behin, arope-k Euskadin duen inpaktu erreala aztertuko dugu, izan ere, aurreko datuetan pobrezia erlatiboa Espainiar estatuko batz bestekoarekin neurtuta zegoen. Hurrengo grafikoa ikus dezakegu arope adierazleak, eta osatzen dituzten elementuak, EAEn izandako bilakaera 2000. urtetik 2016. urteraino. Ikusi dezakegunez, arope adierazleak 2014. urtean gailurra jo zuenetik, arope biztanleria %22,7 izanda, 2016an jaitsi egin da %20,6ra, 440.823 pertsona, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, oraindik krisiaren aurreko urteetan baino ehuneko handiagoak ikusi ditzakegu. Azkenengo urteetan ikusten den beheranzko joera, pobrezia erlatiboari eta lan intentsitate baxuko adierazleari esker posiblea da. Izan ere, gabezia materiala azken urteetako gailurra lortzen du 2016an (%6,4).

4.grafikoa: EAE-ko arope adierazlearen bilakaera 2000-2016 (%)



Iturria: Egileak egina, PGEI 2000-2016


Azkenengo datuek ere ezberdintasunaren jaitsiera bat aitortzen dute, alegia, Gini indizea (gizarte ezberdintasunak zehazten dituen adierazlea) %25,8 batean kokatzen da, Europako batez

bestekoekin alderatuz bost puntuko aldeak nabarmendu ditzakegu. Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoa, Europako hegoaldeko herrialdeekin konparatuz, printzipioz, errealitate onuragarriagoa erakusten du.

Hurrengo pausoa EAEko lurralde ezberdinen arabeko aldeak aztertzea da, baina kontuan hartu behar dugu ez daudela lurralde ezberdinen arope indizeak eta beraz beste motatako adierazleak erabili beharko dugula. Esan bezala, PGEI-ak eskaintzen digun datuetan oinarrituko gara, bereziki, pobrezia errealean. *“Pobrezia errealtzat hartuko ditugu honako zirkunstantzia hauek: oinarritzko premiak asetzeko ezintasunaren arrisku-egoera nabari denean eta egoera hori ez denean behar beste konpentsatzen biztanleen eguneroko bizimoduan, ez, behintzat, gutxieneko ongizate-mailara iristeko moduan, pobreziatik kanpo” (EUSTAT)*

Lurralde historikoen azterketak erakusten digu Araba dela lurralderik kaltetuena pobrezia eta gizarte bazterketaz aritzean. Bi faktorek eragiten dute fenomeno honetan. Lehenik eta behin, Arabak 2008tik egunerarte bilakaera handiena izan duen lurraldea izan da, eta gainera azkenengo urteetan jaitsi baino igo egin dira pobrezia errealearen datuak. Horrela, 2008an pobrezia errealearen %4,1 izatetik, 2012an bikoiztu egin zen (%8,2) eta 2016 oraindik ere igo %10,4 era. Berriz, Bizkaian eta Gipuzkoan, azkenengo urtean pobrezia errealearen tasa jaitsi egin dira, Bizkaian %6,4tik %5,5era eta Gipuzkoan %4,2tik %4ra.


5.grafikoa: Lurralde historikoen pobrezia errealearen bilakaera 2008-2012-101, (%)



Iturria: Egileak eginda, PGEI-ko datuekin (2008,2012,2016)

Getxoko lurraldeari ahalik eta gerturapen handiena egiteko asmoz, PGEI-ak eskualdeko datuak eskaintzen dizkigu. Kasu honetan Getxo “Eskuinaldea” eskualdearen barruan kokatzen da. Eskuinaldea kategoria Ibaizabalen eskuinaldea eta Txorierriko udalerriak barne biltzen ditu. 6. grafikoa ikusi dezakegunez, pobrezia errealearen datu baxuenak “Eskuinaldean” aurkitzen ditugu (%2,4), berriz handienak “Bilbon” aurkituko ditugu (%7,7). Eskualde guztiak 2008-2012 urteen bitartea igoera bat izan duten arren, 2016an beheranzko joera ikusi daiteke, “Durangaldean” izan ezik. Beraz, ondorioztatu dezakegu krisi ekonomikoak eragin zuzena izan duela pobrezia errealearen eremuan.

6.grafikoa: Bizkaiko eskualdeen pobrezia errealearen bilakaera 2008-2012-101, (%)



Iturria: Egileak eginda, PGEI-ko datuekin (2008,2012,2016)

Behin gerturapen hau eginda, Getxoko errealitatea aztertzeraz sartuko gara, kontuan hartuz udalerrri mailan fenomeno honen inguruan ditugun datuak oso urriak direla eta beraz aurretik erabilitako adierazleak ez ditugula aurkituko. Atal metodologikoan zehaztuko dugun moduan gabezia horiei irtenbide emateko zeharka pobrezia eta gizarte bazterketaren errealitatea neurtzen duten datuak erabiliko ditugu.

2.3. Non kokatuko genuke 2018ko Getxo?

Aurreko atalaren bitartez gerturapen kontzeptual eta geografiko baten bitartez Getxo marko batean kokatzen saiatu gara, ikerketa bera kokatzeko asmoz. Behin gerturapena eginda, atal honetan hasieran definitutako helburuei lotutako erantzunak ditugu, hau da, hipotesiak. Gure betebeharra izango da hipotesi hauek ikerketaren bidez baieztatzea edo ezeztatzea. Prozedura honen bitartez fenomeno honen inguruan, eta marko teorikoak garatu ondoren, ditugun usteak islatuak geratuko dira, eta ikerketaren bidez usteak emaitzak bilakatuko ditugu.

2.3.1. Hipotesiak

1. Getxoko errealitate sozio-ekonomikoa inguruko herrialdeekin dituen bereizgarriak, egitura produktiboan, egitura demografikoan eta lan merkatuan aurkituko ditugu. Zehazki aurreratu dezakegu Getxoko ekonomia hirugarren sektorean oinarrituko dela, zaharkitze prozesu nabarmena duela eta inguruko herriekin alderatuz, langabezia tasa eta errenta maila altuagoak dituela.
2. Getxoko auzoen artea errealitate ezberdinak topatzen ditugu, eta hauen arteko aldeak handiak dira. Batez ere Algortan aurkituko dugu pobrezia eta gizarte bazterketaren errealitate latzenak, berriz Negurin fenomenoaren eragin txikiena aurkituko dugu.
3. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketan emakumeak dira, gizonetzkoekin alderatuz, kuantitatiboki zein kualitatiboki fenomenoaren gehien pairatzen dutenak.
4. Getxon, etorkinak dira pobrezia eta bazterkeria egoerak pairatzen duten kolektibo nagusia eta egoera okerrenak pairatzen dutenak.

5. Getxon, pobrezia eta gizarte bazterketari dagokionez, errealitate hau jasaten duten pertsonak gutxiago dira inguruarekin alderatuz, baina zenbait profil bereziki diskriminatuak dira zentsu honetan. Profil horiek emakumea, atzerritarra eta ikasketa maila baxuz osatua izango da.
6. Getxok, pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko, beste herri batzuk baino baliabide gehiago ditu fenomeno honen aurkako politiken alde eskaintzeko.
7. Getxoko auzokideek, orokorrean, ez dute pobrezia eta gizarte bazterketa egoeren presentzia sumatzen. Fenomenoa eredu zehatz bati baino ez zaio esleitzen, eskalearen ereduari.

3. Atal metodologikoa

Ikerketa hau garatzeko ditugun baliabideak eta helburuak kontuan hartuta, eta ikerketa helburuen arabera, ikerketa diseinu deskribatzailea eta azaltzailea planteatuko dugu. Izan ere, Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketari dagokion errealitatearen deskribapena egitetik fenomeno honen ezaugarrien zergatia bilatu nahi dugu. Horretarako bi ikuskera metodologiko nahastuko ditugu, alegia metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa. Diseinu metodologiko hau garatzeko, bi teknika mota erabiliko ditugu, errealitatearen hurbilpen bat eskainiko digutena: Datu sekundarioen ustiaketa eta Elkarrizketa. Ditugun baliabideekin, uste dugu bi teknika hauek era egokian islatuko dutela esku artean daukagun objektuaren errealitatea. Izan ere, datu sekundarioen ustiaketa bidez errealitatearen argazki bat izango dugu, *kuantitatiboki* adierazgarria eta zehatza izango dena. Behin argazki hori izanda, interesgarria izango da eremu horretan mugitzen diren adituen testigantza ezagutzea, gure helburu zein hipotesiak erantzuteko eta errealitatearen ikuspuntu *kualitatibo* bat garatzeko.

Kontuan izanda aurretik defendatutako pobrezia eta gizarte bazterketaren dimentsio anitzak, hiru eremu edo dimentsio nagusi bereiztu ditugu (eremu ekonomikoa, politikoa eta soziala), eta jarraian azalduko dugunez, era ezberdinetan saiaturako gara dimentsio horiek erantzuten. Aurreratu dezakegun lan honen mugetako bat, eta orokorrean fenomeno honen azterketan aurkitu dezakegun mugetako bat, dimentsio ekonomikoaren gailentasuna litzateke. Kontuan hartuz gainontzeko dimentsioak aztertze dagoen gabezia, adituen testigantzaren bidez saiaturako gara hutsune hori betetzen. Hala ere, aurrera begira, funtsezkoa da dimentsio politiko zein sozialaren azterketan sakontzea eremu ekonomikoaren parean egon daudelako.

4. taula: Azterketaren edukiak eta erabilitako teknika metodologikoak

	Zer neurtuko da	Nola neurtuko da
Eremu ekonomikoa	Baliabide ekonomikoaren gabezia	-DBEren azterketa -Gizarte zerbitzuen 2016ko memoria -Caritas-en 2016ko memoria -Elkarrizketak
Eremu politikoa eta hiritartasuna	Parte hartze politikoa Eskubide sozialei sarrera	-Elkarrizketen bidez
Eremu soziala eta harremanak	Isolamendu soziala Gatazka soziala	-Elkarrizketen bidez

Iturria: Egileak egina.

3.1. Diseinu kuantitatiboa

Erabiliko dugun lehenengo teknika datu sekundarioen ustiaketa izango da. Teknika honen bitartez Getxoko erradiografia bat egiten saiatuko gara, Elkarrizketen bidez osatuko duguna. Kontuan hartu behar dugu oso zaila dela udalerrri mailan pobrezia eta bazterkeriaren inguruko datu zehatzak batzea, hain zuzen ere, ez direlako era zuzenean inoiz neurtu eta aurreko ataletan ikusi dugun moduan, neurtzeko era ezberdinak daudelako. Beraz, eta esandakoa kontuan hartuz, fenomeno berdina zeharka neurtzen duten eta eskuragarri ditugun beste datuen batzuen bidez pobrezia eta gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan daudenen estimazio bat egiten saiatuko gara. Horretarako DBE-ren (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzaile kopurua erabiliko dugu, beti ere *baldintza metodologiko* bat onartuz, alegia, DBE jasotzen duten gizabanakoak pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan daudela. Estimazio honek, mugak izanda ere, Getxon fenomenoak duen tamaina ezagutzera hurbildu gaitzake. Mugen artean ditugun desabantaila bat hurrengoa da: Diru-sarrera Bermatzeko Errenta kanpoan uzten dituen hainbat egoera eta kolektibo ez dira estimazio honen bidez islatuak egongo. Hala ere, beste iturri batzuen bidez ordezkatzea espero dugu, hala nola, Caritas-eko memoria.

DBE-ren azterketak ahalbidetuko digu Getxoko lurraldeko datuekin lan egiteaz gainera Getxoko auzoen artean egon daitekeen aldeak aztertzea. Hala ere, estimazio honetan identifikatu dezakegun elementu garrantzitsuena fenomenoak dituen joerak izango dira. Aldiro hartzen diren datuak direnez gero, haien arteko konparaketak Getxoko azken urteetako joera identifikatzea erraztuko digu. Guk identifikatuko ditugun joera nagusiak indartzeko eta baieztatzeke asmoz, jatorri ezberdina duten bi iturri gehiago gehituko ditugu gure diseinuan, hala nola, Getxoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileak eta Caritas Getxora hurbildutako pertsona kopurua. Bi iturri hauen bitartez DBE-ren azterketaren bitartez ateratako emaitzak indartzen saiatuko gara.

5. taula: Ikerketaren diseinu teknikorako erabilitako iturriak

	Erakunde Publikoa	Erakunde Pribatua
Lanbide	Getxoko Gizarte Zerbitzuak	Caritas Getxo

*DBE-ren
jasotzaileak*

2016ko Memoria

2016ko Memoria

Iturria: Egileak egina

Iturri hauen bidez fenomenoaren tamaina, osaera eta ezaugarriak ezagutzea espero dugu. Gainera, iturri ezberdinak erabiltzeak alderatzeko ahalmena eskainiko digu eta horrek, azken finean, azterketa aberastu baino ezin du egin. Hurrengo pausoan azalduko dugun moduan, eta aurretik esan bezala, identifikatuko ditugun joerak fenomeno honen inguruan lan egiten duten adituen testigantza bidez osatuko ditugu.

3.2. Diseinu kualitatiboa

Elkarrizketari dagokionez, eta ikerketa objektuaren osotasuna eta honen dimentsio anitzak ulertzeko asmoz, Lau elkarrizketa egitea erabaki dugu. Beraz, sortutako lagina hurrengo adituez sortuta dago: Getxoko eremu instituzionalean jarduten duten bi aditu, Getxon pobrezia

eta bazterkeria erakunde pribatuetan jarduten duen aditu bat eta Euskadi mailan instituzio eta erakunde pribatuen erdi maila batean aritzen den laugarren aditu bat. Alde batetik, lagin honekin, pobrezia eta gizarte bazterkeriaren inguruan aritzean instituzio publikoen eta erakunde pribatuen artean sortu daitezkeen ikuspuntu ezberdinak gainditzea du helburu. Izan ere, askotan norberaren posizioak ikusten duen errealitatean eragin zuzena dauka eta beraz fenomenoak distortsionatu daiteke bi eremu hauetatik bakar batean zentratzen bagara. Bestetik, eta Getxoko errealitatea inguruarekin alderatzeko asmoz, Euskadi mailan aritzen den agente bat hautatu dugu, errealitate orokorrago bat eskaintzeko, eta Getxoko inguruarekin izan ditzakeen bereizgarriak identifikatzeko.

Sortutako laginarekin hasiera batean definitutako helburuei erantzuteko gai izatea espero dugu, izan ere, elkarrizketatutako profil ezberdinek helburuek zehaztutako dimentsio ezberdinei erantzuten diete. Jarraian era eskematiko batean islatzen da laginaren diseinua:

6. taula: Ikerketaren diseinu teknikorako elkarrizketen lagina

	Erakunde Publikoa	Erakunde pribatua
Getxon	Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria Immigrazio teknikaria	Getxoko Cáritas koordinatzailea
Orokorrean	EAPN Euskadi kordinatzailea	

Iturria: Egileak egina

Behin laginaren nondik norakoak azalduta, lagina osatzen duten subjektuen justifikazioa eta aurkezpenari helduko diogu. Lehenik eta behin, Getxoko erakunde publikoetan aritzen diren bi subjektuak aurkeztuko ditugu, alegia, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria eta Immigrazio teknikaria. Lehenengoa bezalako profil baten bitartez fenomeno honek Getxon duen nolakotasuna hobeto ulertzeko perfil ezin hobea daukagu. Kontuan hartuz pobrezia eta gizarte bazterketaren izaera anitza, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren bitartez konplexutasun horri irtenbide ematen saiatuko gara. Gainera, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria den heinean, eremu publikotik Getxon pobrezia eta bazterkeria pairatzeko arriskuan daudenen errealitatea aztertzeo aukera izango dugu. Aldi berean, udalak fenomeno honen aurrean duen diskurtsoa eta zeregina aztertu ahal izango dugu. Ildo berdinetik, baina dimentsio zehatzago batean murgilduta, Getxoko Immigrazio teknikaria daukagu. Hasiera batean hipotesi moduan planteatu dugun moduan, gure ustea da Getxon pobrezia eta gizarte bazterketa gehien pairatzen duten artean etorkinen kolektiboa dugula da. Beraz, eta kolektibo honen errealitatea sakonago ezagutu nahian, ezin hobeto islatu

ahal digu populazio immigranteak Getxon duen errealitatea eta pobrezia eta gizarte bazterketari dagokionez bizi ohi duten egoera.

Laginarekin jarraitzeko, Getxoko eremuan diharduen hirugarren eragile bat daukagu Caritas Getxoko koordinatzailea. Profil honen bitartez eremu instituzionaletik at lan egiten duen profil bat bilatu dugu, pobrezia eta gizarte bazterketaren eremuan aritzen dena eta lurraldearen errealitatea ezagutzen duena. Caritas Getxon pobrezia eta bazterketa eremuan lan egiten duen erakunde garrantzitsuenetarikoa bat den heinean, gure azterketarako baliagarri izan daitekeen testigantza bat eskuratu dezakegu. Gainera, aurretik aipatutako eremu publiko eta pribatuaren arteko tentsioak gainditzeko aukera ematen digu. Eta laginarekin bukatzeko, EAPN (European Anty Poverty Network) Euskadiko koordinatzaile nagusia daukagu. Azkenengo profil hau Getxotik at eta pobrezia eta gizarte bazterketa eremuan lan egiten duen profil baten bila hautatu dugu. Honen bitartez Getxok testuinguruarekin izan ditzakeen bereizgarriak aztertzea saiatuko gara. Gainera, EAPN Euskadi nazioarteko mailan kooperatzen duen entitatea izanda, lagungarria izan daiteke begirada edo ikuskera orokorrago bat lortzeko asmoz.

Esan beharra dago, eta pobrezia eta gizarte bazterketaren izaera eta faktore anitzei irtenbide emateko, adituen testigantza ezinbestekoa izango dela ikerketaren osotasuna bermatzeko. Izan ere, fenomenoaren zenbait dimentsio neurtzeko adierazle egokien gabezia gaude. Hala nola, pobrezian eta gizarte bazterketan eragiten duten funtsezko dimentsioak dira politikoa/hiritartasuna eta sozial/harremanak. Bi dimentsio hauek neurtzeko zailtasunak direla medio, adituen testigantza eta hauen esperientzia oinarrizkoak izango dira ikerketa osatzeko.

4. Emaitzak: Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa

Hasierako hurbilpen kuantitatibo bat egiteko eta pobrezia zein gizarte bazterketaren argazki bat izateko atal metodologikoan azaldutako hiru iturri ezberdinetan jasotzen diren datuak erabiliko ditugu, bereziki baliagarriak direnak azkenengo urteetan gauzatu den bilakaera aztertzeko. Iturri hauek, esan bezala, hurrengoak dira: Diru-sarrera Bermatzeko Errentaren jasotzaileak (aurrerantzean, DBE), Getxoko Gizarte Zerbituetako erabiltzaileak eta Caritas Getxo egindako azken memoria. Hiru iturri hauen ustiaketaren bitartez saiatuko gara, ahal den neurrian, fenomeno honen nondik norakoak ezagutzea, tamainaz, izandako bilakaera eta inguruko herriekin alderatuz dituen bereizgarriak. Hasieratik esango dugu, DBEren jasotzaileaz hitz egiten dugunean, *Bizikidetza Unitateak* izango direla, hau da, *Diru-sarrerak bermatzeko errentan erabiltzen den kontzeptu bat; familia-unitatea nork osatzen duen zehazteko erabiltzen dena* (Lanbide). Beraz, jasotzailezat hartuko ditugunak bizikidetza unitateak izango dira, eta ez indibiduoak eta bizikidetza unitateetan pertsona bat baino gehiago egon daitekenez DBE-arekin bizi direnen kopurua bizikidetza unitatea baino handiagoa izango da beti.

Atal honetan, emaitzak aurkezterako orduan, erabilitako bi teknikak nahastuko ditugu bien abantailak aprobetxatzen saiatzeko. Beraz, elkarriketen bidez lortutako testigantzak eta datu sekundarioen ustiaketaren bidez lortutako emaitzak aldi berean aurkeztuko ditugu.


Gauzak horrela, emaitzen azterketarekin hasiko gara. Lehenengo gai hau sarrera moduan funtzionatuko du, Getxoko errealitate sozioekonomikoa aurkezteko eta inguruko herriekin izan ditzakeen bereizgarriak aztertzeko. Izan ere, herri baten egiturazko ezaugarriak eragin zuzen izan dezakete pobrezia eta gizarte bazterketa fenomenoan. Behin Getxo kokatuta, gainontzeko gaiekin sartuko gara.

4.1. Getxoko testuinguru sozioekonomikoa eta pobrezia eta gizarte bazterketari sarrera.

Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa era egokienean aztertzeko asmoz, lehenengo urrats moduan testuingurua ezagutzea beharrezkoa da. Aurreko ataletan EAEn zein Getxoko inguruko errealitateari hurbilpen bat egiten saiatu gara fenomeno honi dagokionez, eta oraingoan Getxoko errealitate sozioekonomikoa aurkeztuko dugu. jarraian geroago erabiliko ditugun tresnei (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Gizarte Zerbitzuak eta Caritas) eskainiko diogu arreta.

4.1.1. Getxoko testuinguru sozioekonomikoa

7. grafikoa: Getxoko 2017ko biztanleria piramidea (%)



Iturria: Egileak eginda, Getxoko Udaleko datuekin


Getxoko argazki sozioekonomikoarekin hasiko gara, zehazki argazki demografikoarekin. Nabarmentzekoak diren bi elementu dauzkagu: *Biztanleriaren hazkunde negatiboa* eta *Gizartearen zaharkitze prozesua*. Lehenengoari dagokionez, esan beharra dago azkenengo 10 urteetan biztanleria jaitsi baino ez duela egin, eta 2007an 81.338 biztanle izatetik egun 77.793 izatera igaro dela. Hazkunde negatiboa handiagoa izango zen atzerritarren migrazio fluxuak kenduko bagenu. Bigarren elementua, gizartearen zaharkitze prozesua, gero eta garatuago da Getxon. 2017an biztanleriaren %23,39a 65 urte baino gehiagokoa da, berriz, 2007an %16a baino ez zen.

“65 urtetik gorako populazioaren erkidegoko datu handienak ditu eta inguruko udalerriek hazten diren bitartean (Sopela, Berango edota Leioa), Getxok hazkunde demografiko negatiboa du”. (E 1).

Fenomeno hauek gertatzen dira, elkarrizketatutako adituen ustetan, Getxoko zeinbait egiturazko ezaugarri filtro moduan funtzionatzen dutelako, eta horrek desorekak sortzen ditu inguruko herriekin (E1 eta E4). Beraz, ondorioztatu dezakegu printzipioz pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruko zeinbait datu positiboak diruditenak, berez negatiboak direla, aukerarik gabeko, edo behintzat aukera mugatuak dituen udalerrri bat garatzen ari garelako.

Aurretik esan bezala, populazio atzerritarrari esker Getxoko hazkunde negatiboa oraindik ere leuna da urte batetik bestera. Datu orokorrak emate arren, eta Getxoko udalak argitaratutako “2016ko immigrazio ikuspegia” frogatzen duen bezala, *feminizatutako populazio atzerritarra* da Getxon, bereziki kolektibo latino-amerikarraz hitz egitean. Hauek jatorri atzerritarra dutenen %51,9a da. Geroago ikusiko dugunez, atzerritar populazioaren feminizazioa Getxoko egitura produktiboari erantzuten dio, eta jatorri guztietan da nabarmena Afrikako jatorriak izan ezik.

8. grafikoa: Getxoko, Bizkaiko eta EAEko BEGa, sektoreen arabera, 2016an (%)



Iturria: Egileak egina, EUSTATEko datuekin (2016)

Getxoko egitura produktiboak duen berezitasun handiena zerbitzuen sektoreak duen pisua da. Getxoko Balio Erantsi Gordinaren (BEG) %88,9a zerbitzuen sektoreak sortzen du, hau da, sortzen diren 10 euroetatik 9 zerbitzuek sortzen dute. Inguruarekin alderatuz aldea nabarmena da, Bizkaiaren kasuan zerbitzuek BEGren %72,8a sortzen dute, eta EAEn %68a. Beraz ondorioztatu dezakegu Getxo zerbitzuetan oinarrituko ekonomia bat garatu duela, gainontzeko sektoreak baztertuz.

Egitura produktiboak herrien konfigurazioa baldintzatzen du, Getxo ez da salbuespena eta migrazio fluxuen osaketa eta ezaugarrietan eragin zuzena du. Datu bat emate arren, Getxo lan egiten duten 10 pertsonetatik bik baino ez dute udalerrian lan egiten. Gehiengoa inguruko herrietara joaten da lanera.

“Herrien arteko immigrazio fluxuen ezberdintasunak, eta beraz herri bakoitzaren etorkinen konfigurazioa, lan merkatuak baldintzatzen du”. (E 2).


“Zerbitzuetan oinarritutako ekonomia bat garatu du Getxo, eta beraz ez du lan sorrera handirik”. (E 1).

Langabezia tasari dagokionez Bizkaiko eta EAEko bataz bestekoak baino zertxobait baxuagoa da, %9,6a hain zuzen ere. Atal ekonomikoarekin bukatzeko Getxoko errenta pertsonala aztertzea komenigarria da, izan ere Getxoko errenta pertsonala EAEko udalerrien bostgarren altuena da, eta altuena 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, zehazki 27.261 eurokoa da. Beraz, eta printzipioz, esan genezake aberastasuna metatzen den eremua dela Getxo.

4.1.2. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketari sarrera

Behin eremu sozioekonomikoaren adierazle garrantzitsuenen argazki txiki bat eginda, gure azterketa eremuan sartuko gara. Hurrengo zatia Getxoko DBEren, Gizarte Zerbitzuen eta Caritas-en datu orokorrak aurkeztuko ditugu, geroago hurrengo ataletan datu horiek sakonago aztertzeko. Beraz, Getxon DBEren jasotzaileen datuekin hasiko gara. Horretarako, Getxoko DBEa izan duen bilakaera historikoa aztertzeko, bi iturri ezberdinetara joan behar izan gara, izan ere, 2012. urtean DBEaren kudeaketa udal eremutik Lanbidera igaro zelako. Beraz, 2008 eta 2011 urteen bitartean Getxoko Gizarte Zerbitzuen datuak diren bitartean, 2014 eta 2018 ko datuak Lanbidetik aterata daude.

9. grafikoa: Getxon DBEren jasotzaileak, 2008-2018ko martxoa (absolutuetan)




Iturria: Egileak egina, Lanbidetako datuekin eta Getxoko Gizarte Zerbitzuen datuekin

Behin argibide hauek eginda, datuak aztertzeraz goaz. X. grafikoan ikusi dezakegun moduan, 2008tik 2014ra etengabeko jasotzaile kopuruaren hazkundea gertatzen da, eta 2008an 1270 jasotzaile izatetik, 2014ean 1909 izatera igarotzen da. Joera hau 2008ko krisi ekonomikoaren bidez azaldu daiteke, izan ere, soberan jakina denez, hemendik 6000km-ra garatutako finantzia krisi baten modura hasi zena hurrengo urteetan eta domino joko baten antzera, gure gizartea ukitu eta gure egunerokotasunean eragin zuen, eta ikusten dugunez Getxo ez da salbuespen bat izango. EAEko urte gogorrenak 2014. Urtean izan ziren eta grafikoan ikusten den moduan, hortik

aurrera beheranzkoa den joera bat sumatu daiteke, 2018an 1602ko jasotzaile kopuruarekin. Hala ere, oraindik ere krisia baino lehenagoko datuak oso urrun geratzen zaizkigu.

10. grafikoa: Bizkaiko 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien DBEren jasotzaileak, 2018 (%)




Iturria: Egileak egina, Lanbideko datuekin (2018ko Martxo)

Getxo Bizkaiko gainontzeko udalerriekin alderatuz gero, 10.000 pertsona baino gehiagoko udalerriak, konturatuko gara bigarren erdialdean kokatuko dela, zehazki hogeitik hamabosgarrena. Bizkaian biztanleriaren ehuneko gehien biltzen duena Sestao da, biztanleriaren %5,36arekin eta gutxien Galdakao %1,26arekin. Berriz Getxon biztanleriaren %2,06a jasotzen du. Beraz, Getxo medianaren zein batz bestekoaren (%2,5a) azpian kokatuko genuke DBEaren jasotzaile kopuruari dagokionez.

Getxoko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile absolutuen azterketa historiko bat egitea zaila da, izan ere azkenengo urteetan konpetentzia eta kudeaketen aldaketak egon dira Eusko Jaurlaritz eta Udalen artean. Beraz, Gizarte Zerbitzuei dagokionez, 2016. urtea aztertuko dugu, zehazki, 2016an gauzatutako eskaeren eta laguntzen osara.

11. grafikoa: Getxoko Gizarte Zerbitzuetan egindako eskaerak, arrazoien arabera, 2016an (%)




Iturria: Egileak egina, Getxoko Gizarte Zerbitzuak (2016)

Getxoko Gizarte Zerbitzuetan egindako eskaeren %43a bizi irauteko baliabide ezari zuzenduak zeuden, %36a norberaren autonomia asetzeko eskaerak ziren, %13a informazioa eske, %6a Bizikidetzara arazoak direla medio eta %2a gizarteratzeko zailtasunak zeudelako. Beraz, nabarmentzekoa da bizi irauteko arazoak gizarte zerbitzuetan duten pisua, eskaera guztien ia erdia. Azkeneko urteetan azken motatako eskaerak goranzko joera erakutsi dute. Hala ere, datu

hauek ere balio zaizkigu Gizarte Zerbitzuek daukaten estigma gainditzeko, izan ere, izaera anitza duen espazioak dira Gizarte Zerbitzuak.

12. grafikoa: Getxoko Gizarte Larrialdiko laguntzak, kontzeptuaren arabera, 2016an (%)



Iturria: Egileak egina, Getxoko Gizarte Zerbitzuen datuetatik

Hurrengo grafikoa ikusten dugunez, Emandako *Gizarte Larrialdiko Laguntzak* ditugu eremu bakoitzean egindako gastuaren arabera. Kasu honetan nabarmentzekoa da gastuaren %58a etxebizitza mantentzeko edo alokatzeko laguntza ekonomikoak direla, horrek adierazten digu Getxon aurkitu dezakegun etxebizitzaren arazoak, bereziki prezioari lotuta eta beraz etxebizitzaren inguruko prekarietatea. Bigarren gastu handiena lehen mailako beharrak asetzerara daude bideratuak, %26,84 hain zuzen ere.

4.2. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, auzoen arabera.

Getxoko errealitatea askotan bateratzeko eta homogeneizatzeko joera nagusitu ohi da, eta ez gara ohartzen 80.000 pertsona inguruko herri baten inguruan ari garela. Sinplifikazioak, homogeneizazioak eta bateratzeak, errealitate ugari fokotik atera eta estaltzen ditu.

“Pobreziaz eta gizarte bazterketaz hitz egitean, beharrezkoa da fokoa hurbiltzea, auzoetara hurbiltzea ere. Izan ere Udalerrri berdinean errealitate zeharo ezberdinak aurkitu ditzakegu”. (E 4).

Adibide argiak dira Getxo eta pobreziaz hitz egiten denean, ohikoena “Getxon ez dago horrelakorik” entzutea da, egia izan edo ez. Berriz, eta Getxo ezagututa, jakina da auzo ezberdinen arteko alde handiak somatzen direla, eta beraz horiek kontuan hartu beharrekoak direla. Auzoen arteko alde horiek zeintzuk diren argitzen saiatuko gara hurrengo lerroetan eskura ditugun zenbait datuen bidez.

7. taula: Getxoko DBE-ren jasotzaileak, auzoka, 2018ko Urtarrilean, (%)


Auzoak	Biztanleria	%
Algorta	33.849	2,5%
Andra Mari	10.316	0,9%
Areeta	26.167	2,3%

Neguri	7.427	0,5%
--------	-------	------

Iturria: Lanbide (2018ko Urtarrila)

Beraz, eta herriaren benetako konfigurazioa ezagutzeko asmoz, aurreko taulak DBE-ren jasotzaileak diren ehunekoa erakusten digu, auzoen arabera sailkatuak. Aldeak nabarmenak dira. Algortako (%2,5) eta Areetako (%2,3) auzoak jasotzaile gehiago pilatzen dituzte Andra Mari (%0,9) eta Neguriko (%0,5) auzoak baino, balore absolutuetan zein erlatiboetan. Beraz, ondorioztatu behar dugu Getxoko errealitatea heterogeneoa dela behintzat auzoei dagokionez, DBE-ren beharra handiagoa delako Algortako eta Areetako auzoetan. Kontuan izanda, 10.000 biztanle baino gehiagoko Bizkaiko udalerrien DBE-ren jasotzaileen batz bestekoa (%2,49), Algorta eta Areetako auzoak Bizkaiko batz bestekoaren inguruan mugitzen dira, berriz Andra Mari eta Neguri oso tasa baxuak erakusten dituzte.

13. grafikoa: Gizarte Zerbitzuen ekintza, eremuaren arabera, 2017ko urtarrilean (%)



Iturria: Getxoko Gizarte Zerbitzuak

Errealitate hau ere argi geratzen da Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak auzoka aztertzen baditugu, beti ere oinarrizko gizarte zerbitzuetan. Kasu honetan, Getxoko gizarte zerbitzuek 2016an plazaratutako azken memorian, hiru dira bereizten diren auzoak: Algorta-Neguri, Areea eta Andra Mari. Getxoko Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako ekintzen %49a Algorta-Neguri eremura bideratu egin da, %38a Areetara eta %13a baino ez Andra Marira. Kasu honetan, eta nahiz eta aurreko joera berdina mantendu, logikoa da pentsatzea nukleo urbano handienetan pilatuko dela Gizarte Zerbitzuen ekintza gehienak. Ildo honetan, eta beste datu bat emate arren, udalerrri osoan gizarte zerbitzuen gastuaren %51a Algorta-Neguri eremuan egin da.

“Getxoren barruan errealitate sozial oso ezberdinak aurkitu ditzakegula, eta horregatik Caritas-en zentroa ez dago Negurin, Algortan baizik”. (E 3).

Beraz, ondorioztatu dezakegu auzoen arteko errealitate sozial ezberdinak aurkitu ditzakegula Getxon bertan, eta horiek arreta berezia eskaintzea beharrezkoa da, izan ere, homogeneizazioak errealitate anitzak estaltzea dakar.

Bukatzeko interesgarria da Getxon erabilitako esaera bat, luzez erabili dena, eta bi errealitate hauek islatzen dituen, alegia, “de las barreras para bajo y de las barreras para arriba” bi Getxo ezberdin topatuko ditugu. Hau da, metroaren alde batean edo bestera bi errealitate ezberdin topatuko ditugu. Are gehiago, gure hipotesiek diote Getxon atzerritarrek direla pobrezia eta gizarte bazterketa gehien pairatzen dituztenak, eta 2016ko Getxoko immigrazio ikuspegian ikusi dezakegu “de las barreras para abajo” zonaldean pilatzen direla atzerritar ehuneko handienak,


hain zuzen ere Caritas-eko zentroa aurkituko dugun zonaldean. Kasu honetan ez dut uste kasualitatea denik.

4.3. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, *generoaren arabera*.

Generoa, kontzeptu soziologiko gisa, 70. hamarkadatik aurrera eremu biologikoa eta soziokulturala bereizteko ahaleaginean garatutako kontzeptua da (Esteban, 2009: 49). Momentu horretatik aurrera eremu biologikoaren eta eremu soziokulturalaren arteko tentsioen gainean teorizatzeko ahalmen ezberdinak egingo dira. Argi dagoena da, mundura ailegatzen garen momentutik aurrera gure sexu biologikoak baldintzatuko duela hein handi batean gizartea jokatuko dugun rola, edo genero-rola. Sexuaren gainean eraikitako genero rol horiek emakumeen zein gizonezkoen papera definituko dute, eta ondorioz, hauen posizioa zehaztuko dute.

Beraz, ezinbestekoa da pobrezia eta gizarte bazterkeriaren inguruan aritzeaz genero ikuspuntua txertatzea bi sexuen arteko ezberdintasunak ezagutzeko asmoz, jakin dakigulako, egungo gizartean ez dela berdina emakumezkoa edo gizonezkoa izatea. Ildo horretan DBE-ren inguruko lehenengo datu batzuk aurkeztuko ditugu sexuen arabera aldeak dauden edo ez ezagutzeko.


14. grafikoa: Getxoko DBE-ren jasotzaileak, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak eta Caritas-en erabiltzaileak, sexuaren arabera (%)



Iturria: Egileak egina, *Lanbide* (2018ko Martxoa), Getxoko Gizarte Zerbitzuak eta Getxoko Caritas datuekin

Lehenengo argazki moduan ikusi dezakegu Getxon DBE-a jasotzen duten %67a emakumeak direla, 1081 pertsona. Gizonezkoak %33a dira, 521 pertsona, hain zuzen ere. Antzeko datuak erakusten digute Gizarte Zerbitzuetara eta Caritas-era hurbiltzen diren biztanleak. Beraz, printzipioz, emakumeak dira maila handiago batean zerbitzu hauen beharra erakusten dutenak, eta beraz pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arrisku handiago batean daudenak. Ezberdintasun hauek adinaren arabera erreproduzitu egiten diren aztertzeke asmoz, adinen arabera banaketari erreparatuko diogu, hain zuzen ere, DBE-ren jasotzaileen arteko adin eta sexu banaketari, 15. grafikoa.

15. grafikoa: Getxoko DBE-ren jasotzaileak, sexuaren eta adinaren arabera, 2018ko martxoa (absolutuetan)




Iturria: Egileak egina, Lanbideko datuekin (2018ko Martxoa)

Argi eta garbi ikusi dezakegunez, nahiz eta 65 urte baino gehiagoko adin tartea emakumeek izugarritzko aldea erakutsi (eta sakonago aztertu beharko zen zergatia, ez bait da faktore demografikoa bakarra), adin tarte guztietan dira emakumeak DBE-aren jasotzaile nagusiak. Joera berdina ikusi dezakegu Oinarrizko Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak aztertuz, izan ere, adin tarte guztietan emakumezkoak dira nagusi, salbuespena 18 urte baino gutxiagokoak izanda.

Ondorio berdinak atera ahal ditugu Getxok duen batz besteko errenta pertsonala behatzerakoan, bereziki gizonezkoen eta emakumezkoen aldea aztertzen baditugu. EUSTAT-en arabera, 2015ean Getxoko 18 urte baino gehiagoko gizonezkoen errenta totala 35.773 eurokoa zen bitartean, emakumezkoena 20.014 eurotan mantentzen zen, 15.759 euroko aldea. Bizkaiko edo EAeko aldeak aztertuz 10.000 euro inguruko aldeak aurkitzen ditugu. Beraz, Getxon emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea zeharo handiak dira, baina hare handiagoak dira inguruarekin alderatuz.

16. grafikoa: Getxoko, Bizkaiko eta EAeko DBE-ren jasotzaileak, sexuaren arabera, 2018ko martxa (%)



Iturria: Egileak eginda, Lanbideko datuekin (2018ko martxoa)

Sexuaren araberako ezberdintasunekin jarraituz, ikusi dezakegu Getxo ezberdintasun handiak dituela DBE-ren jasotzaile kopuruetan, zehazki %34,9ko aldea dago gizon eta emakumeen artea. Bizkaiko (%17,4ko aldea) eta EAeko (%15,4ko aldea) batz bestekoen aldeekin alderatzen badugu Getxon bikoiztu egiten da hauen batz besteko aldeak.

Elkarrizketen bidez lortutako informazioa ere ildo berdinetik doa, alegia, emakumeak dira hein handiago batean baliabide pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arrisku handiena dutenak.

“Lanak jada ez du pobrezia eta gizarte bazterketa ekiditeko aurreko hamarkadetan zuen ahalmena, eta ondorioz instituzio publikoetatik konpentsazioak edo gehigarriak egiteko beharrean daude. Testuinguru honetan, emakumea da, hein handiago batean, egoera hauek pairatzen dituena. Gainera, familietan, eta familia arazoetan, emakumeak dira gain karga handiena hartzen dituztenak”. (E 1).

Gainera, Getxon, lan domestikoa izugarriko indarra duen sektore bat da. Lan domestikoa, lan eremurik prekarioenatarikoa izanda, erregimen berezi baten sailkatuak direlako, emakumeak betetzen duten lan eremua da, eta bereziki emakume atzerritarrak.

“Getxok, tradizionalki, trakzio ikaragarria egin du lan domestikoaren eremuan. Baldintza kaxkarrak dituen lan bat den heinean, prekaritatea dihardute horretan aritzen direnak, batik batik emakumeak”. (E 3).

“Atzerritar kolektiboaren lan eremu nagusia da lan domestikoa, eta Getxon sortzen den lan postuen %16a lan domestikoan sortzen da. Getxon trakzio faktore moduan funtzionatzen hari den elementu nagusia daukagu lan domestikoa”. (E 2).


Egoera hauek larrienak izanda, eta kontuan hartuz tamainaz duen presentzia, beste lan eremu guztietara hedatuta dagoen fenomeno da. Emakumeen laneratzea, genero-rolen eta honek sortutako lan banaketaren ondorioz, desoreka handiko baldintzetan gauzatzen da. Horrek azterketa sakon bat behar duen arren, orokorrean esan daiteke desoreka handiko lan merkatua dela nagusi, eta gainera emakumeen laneratzeak ez duela ekarri lan domestikoa eta zaintza lana gizonezkoek bere gain hartzea.

Datu guzti hauek bide ematen digute ondorioztatzeko, orokorrean emakumeak behar ekonomiko handiagoak dituztela gizonezkoekin alderatuz, eta horrek pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskua handiagoan kokatzen dituela. Gainera, nahiz eta krisiak gizon eta emakumezkoen arteko aldea lausotu, oraindik ere alde nabarmenak ikusi daitezke. Inguruko lurraldeekin alderatuz gero, aldeak nabarmen handiagoak dira Getxon gizon eta emakumeen artean.

4.4. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, Jatorriaren arabera.

Migrazioa, gizadiaren hasieratik existitu izan den fenomeno da, gaur egunerarte ailegatu dena. Gizadiaren izaeran dago leku batetik bestera mugitzeko beharra, edozein arrazoi dela medio. Getxo ez da salbuespena izango, eta urtero migrazio fluxuak jasotzen ditugu gure herrian. Baina, lan honetan erantzun nahi dugun galdera hurrengoa da: Etorkin atzerritarra izatea, pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arrisku handiagoa suposatzen du? Logikoa da pentsatzea baietz, eta horretan hain zuzen ere arituko gara atal honetan, alegia, etorkin atzerritarren eta bertan jaiotakoekin arteko aldean jarriko dugu arreta.

17. grafikoa: Getxoko DBE-ren jasotzaileak, jatorri geografikoaren arabera, 2018ko martxoan (%)



Iturria: Egileak eginda, Lanbideko datuekin (2018ko martxoa)

Aurretik jarraitutako eskema mantenduz, DBE-aren azterketari ekingo diogu, kasu honetan jaiotze eremu geografikoaren arabera, alegia, jatorriaren arabera. Datuek hurrengoa erakusten digute:

- %56a bertan jaiotakoak (Espainian jaiotakoak) jasotzen dutela,
- %33a Hego Amerikan jaiotakoak,
- %5a Europan, berdina Afrikan jaiotakoak eta
- %1a Asian jaiotakoak.

Nahiz eta datu absolutuetan bertakoek izan DBE-aren jasotzaileen erdia baino gehiago, datu erlatiboak aztertuz ikusi dezakegu atzerritar kolektiboaren barruan DBEren behar handiago bat dagoela. Zehazki, atzerrian jaiotakoen %9,1ek DBE jasotzen du, 666 pertsona, berriz bertakoen %1,2a baino ez du jasotzen, 894 pertsona hain zuzen ere. Horrek aurreratu ahal digu populazio atzerritarra zaugarritasun handiagoko egoeran dagoela.


“Noski eragina duela immigrantea izatea Getxon, bereziki kontuan hartzen badugu zorpetuak ailegatzen direla eta baliabide eta sare harreman oso urriekin ailegatzen direla”. (E 2).

Funtsezko elementu bat ekarriko dugu azterketa honetara, bertakoen eta atzerritarren aldean eragin handia duena, familia eta familia babesia. Zaila da pobrezia eta gizarte bazterketa egoeretan familiek egiten duten euskarri edo sostengua kuantifikatzea, normalean eremu pribatuan geratzen delako. Hala ere, argi dago gizarte familiarista batean gaudela, eta familiek gizabanakoen sostengurako lehenengo zutabeak direla. Gure gizartean funtsezkoa den sostengu hori atzerritar populazioa ez dauka eskura, eta horrek izugarritzko zaugarritasun kroniko batean kokatzen ditu, batez ere kontuan hartuta aurretik komentatutako lanak daukan egonkortasun falta.

“Familiaren sostengua ez edukitzeak ezegonkortasun larriko bizitza dakar. Familiaren sostenguari esker, lana galtzeak ez dakar zure bizitzaren galera, baina familiaren sostengua ez duenak izugarritzko jauzia pairatzen du”. (E 3).

“Familiek izugarritzko ahaleginak egiten dituzte hainbat errealitateen sostenguan. Horregatik gehienetan ona etortzen direnak oso egoera kazkarrean heltzen dira, familiaren baliabideak behin bukatuta”. (E 1).

18. grafikoa: Getxon DBE-ren jasotzaileak, jatorriaren eta sexuaren arabera, 2018ko martxoa (%)




Iturria: Egileak egina, Lanbideko datuekin (2018ko martxoa)

Jatorriak eta sexuak eragin zuzena du DBEren jasotzailea izatean, edo behintzat hori ondorioztatu dezakegu X. grafikoa aztertuz. Jatorri afrikarretan izan ezik, jatorri guztietan emakumeak dira DBE gehien jasotzen dutenak. Hego Amerikaren kasuan bereziki nabarmena da sexuen arteko aldea, izan ere, emakumezkoek DBEren %78,8a jasotzen dute. Beste muturrean Afrikar jatorriak ditugu, hauen artean emakumeak DBEren %34a baino ez dute jasotzen. Bi jatorri hauek alderantzizko konfigurazioa erakusten dute, baina bietan emakumea da egoera prekariorenak pairatzen dituen. Hego Amerikako kasuan, emakumeak populazioaren %64,9a den bitartean, Afrikako jatorrietan emakumezkoak %30 baino ez dira.

Gainera, kontuan hartu behar dugu kasu honetan DBEren azterketak zenbait arazo dituela. Arazo horien artean DBE jasotzeko baldintzak ditugu, izan ere, DBEK atzerritar asko uzten ditu neurriaren ekintza eremutik kanpo. Beraz, eta gabezia hauei irtenbide emateko asmoz, 2016an Getxoko Caritas aurkeztutako datuak aztertuko ditugu, hauetan ez dagoelako atzerritarrei hurbiltzea oztopatzen dien baldintzarik, eta beraz suposatzea da hemen aurkituko ditugula beste horretan agertzen ez direnak.

Ariketa simple bat egin ondoren, eta kontuan hartuta Caritas-ek aurkeztutako errolda denborak (Getxoko Caritas-era hurbiltzen diren %62 atzerritar jatorria du), lortzen dugun emaitza argia da: %49 ez du DBE jasotzeko beharrezko hiru urteak betetzen, eta ondorioz aurreko azterketatik kanpo geratzen dira, zehazki 124 pertsona aurreko azterketari gehitu beharko genituzke. Caritas eskaintzen digun beste datu garrantzitsu bat da haiek jasotako etorkinen %39a era irregularrean daudela (103 pertsona), eta beraz zaugarritasun handiagoan kokatzen dira. Pertsona hauek zaila dira askotan kuantifikatzeko eta erabateko babesgabetasun egoera batean dihardute.


19. grafikoa: Getxoko Caritas eta Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak, jatorriaren arabera, 2016 (%)



Iturria: Egileak egina, Getxoko Gizarte Zerbitzuak (2016) eta Caritas (2016) datuekin

Gizarte Zerbitzuen erabilpenean bertan jaiotako populazioa (%73) dira nagusi, hala ere, populazio atzerritarra presentzia nabarmena mantentzen jarraitzen du (%27). Azkenengo urteetan, 2008ko krisia geroztik, populazio atzerritarraren intzidentzia txikitu egin da 2008an %34a izatetik 2014ean %23a izatera. Hala ere azkenengo urtean badirudi krisi aurreko egoerara itzultzeko joera erakusten duela. Honek ez du esan nahi populazio atzerritarra krisia gutxiago jipoitu duenik, baizik eta aditu guztiek defendatzen duten moduan, etorkinek lana bila datoz, ez gizarte zerbitzuen laguntzen bila (E1, E2, E3, E4). Beraz krisi ekonomikoaren garaian migrazio fluxuak eten egiten dira eta lana dagoen beste toki batzuetara mugituko dira.

20. grafikoa: Getxoko Gizarte Zerbitzuen erabilzaileak, Jatorriaren arabera, 2008-2016 (%)



Iturria: Egileak egina, Getxoko Gizarte zerbitzuetako datuekin (2008-2016)

Errealitate hau askotan erabili da jarrera xenofoboaren defentsarako, atzerritarrek zerbitzu publikoen eta baliabide publikoen gehiegizko erabilpena egiten dutelakoan. Hori ez da errealitatearen isla. Izan ere, eta Ikuspegi-k egindako 2015eko "Getxoko atzerritar jatorria dutenen integrazio adierazleak" txostenak frogatzen duen moduan "baiezta dezakegu galdetutako atzerritarrek, oro har, eskura jartzen zaizkien udal baliabideak ez dituztela erabiltzen eta bakarrik osasunarekin, enpleguarekin eta gizarte zerbitzuekin zerikusia dutenak nabarmentzen dira." (53. Orr). Hau da, eta beste era batera esanda, etorkinen orokorrean oinarrizko zerbitzuen erabilpena baino ez dute egiten, eta kontuan izanda pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arrisku handiagoa dutela, logikoa da oinarrizko zerbitzu hauen erabilpena egitea, zerbitzu subjektiboak direnez gero. Gainera, lehen aipatu dugun moduan, askotan inguruak behartuta hurbiltze dira Gizarte Zerbitzuetara.

"Askok Caritas-era hurbiltzen direla Gizarte Zerbitzuetara joan baino lehen, eta guk Gizarte Zerbitzuetara zuzentzera behartzen ditugu beraiekin lan egiteko. Beraz, ez da egia baliabide publikoen gehiegizko erabilpena egiten dutela". (E 3).

"Lanik ez dagoenean eta egoera ekonomikoa txarto dagoenean gutxiago datoz. Beraz lan egitera datoz". (E 4).


4.6. Profilen tipologia proposamen bat

Orain arte ukitu ditugun gaiekin eta jaso ditugun datuekin Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa egoera pairatzen dutenen gutxi gorabeherako profil bat imajinatu dezakegu. Hala ere, atal hau horretara eskainiko dugu, alegia, profil ezberdinak garatzen saiatuko gara bakoitzak dituen bereizgarriak identifikatuz. Lehenengo atalean bi aldagai berri sartuko ditugu, bigarrenean profilen inguruko proposamen bat eskainiko dugu.

4.6.1. Adina eta ikasketa maila

Aurreko ataletan profilaren identifikaziorako bi aldagai nagusien inguruan aritu gara, *generoa* eta *jatorria*. Oraingoan bi gehiago gehituko diogu, *adina* eta *ikasketa maila*. Lau aldagai hauen konbinaketak Getxoko profilaren osaketa emango digu. Printzipioz, eta geroago sakonduko dugun moduan, dakiguna da Getxon emakumea izatea edo atzerritarra izatea eragin zuzena duela norbanakoak bizitzen duen zaugarritasunean. Oraingoan berriro ere DBE jasotzen duten populazioaren azterketari ekingo diogu, zehazki adina eta ikasketa maila aztertuz.

21. grafikoa: Getxoko DBE-ren jasotzaileak, adinaren eta sexuaren arabera, 2018ko martxoa (absolutuetan)




Iturria: Egileak egina, Lanbideko datuekin (2018ko martxoa)

Aurreko grafikoak DBE-ren jasotzaileen adinaren eta sexuaren araberako konfigurazioa eskaintzen digu. Adinaren konfigurazioan fijasen bagara ikusiko dugu 30 eta 54 urteen bitartean pilatzen direla kasu gehienak (kasuen %59,8a). Hala ere, salbuespen bat dago 65 urte baino gehiagoko adin tartean, hauek kasuen % 20,3a batzen dituzte. Arrazoi eta faktore ezberdinak daude horretarako, baina argi dago Getxon gizartearen zaharkitze prozesua nahiko garatua dagoela, eta beraz gizartearen kolektibo hau tamaina nabarmena duela. Datu gehiago eskuratuz gero interesgarria izango litzateke gai honen inguruan sakontzea. Kasu honetan, Getxon Bizkaiko zein EAEko konfigurazioekin alderatuz antzeko egiturak aurkitzen ditugu.

Gizarte Zerbitzuen eta Caritas-en erabiltzaileen datuak aztertuz gero antzeko ondorioz atera ditzakegu, nahiz eta bi hauetan egitura ezberdinak topatu. Gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten %43a 65urtetik gorako pertsonak dira, hala ere, eta aurretik ikusitako datuak berreskuratuz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eskaeren %36a norberaren autonomia asetzerara bideratuta daude (batik bat adinekoei zuzendua). Beste %40 bat 35 eta 55 urte bitartean mugitzen dira. Beraz, aurreko grafikoaren antzeko konfigurazioa aurkitu dezakegu. Berriz Caritas-en aurkitzen den

populazioa orokorrean gazteagoa da, 40 urteko batz bestekoarekin. Hau ulergarria da jakinda kolektibo honen gehiengoa atzerritarra dela, eta momentuz atzerritar kolektiboaren adina egitura askoz gazteagoa da.

22. grafikoa: Getxoko DBE-ren jasotzaileak, ikasketa maila eta sexuaren arabera, 2018ko martxoa (absolutuetan)



Iturria: Egileak egina, Lanbideko datuekin (2018ko martxoa)

Ikasketa mailari dagokionez, hasiera batean logikoa izan litekeen osaera bat jarraitzen du, oinarrizko ikasketak baino ez dutenek DBEren %56,9a jasotzen du. Jarraian eta ordenuan batxilerra (%13,4), Lanbide Hezkuntza(%10,2) eta Unibertsitatekoak (%8,6) ditugu. Hala ere, sexuak aldeak zehazten ditu berriz ere, batez ere oinarrizko ikasketak dutenen artean. Kasu honetan emakumeak taldearen %68,6a dira. Gainerako kategorietan aleak askoz txikiagoak izanik, guztietan dira emakumeak egoera latzenak jasaten dituztenak, behintzat kopuruaren aldetik.

Orain arte ikusi dugunarekin, Getxoko bereizgarri nagusiak bi dira inguruarekin alderatuz, alegia, Bizkaia eta EA Erekin alderatuz: Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea handiagoa da eta etorkinen konfigurazio berezia edo muturrekoa du. Alde batetik, generoa aztertu dugun momentuan ikusi den bezala, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldeak handiagoak dira Getxon. Bestetik, Getxok imigrazioaren feminizazio sakon bat garatu du, batez ere emakume latino-amerikarrean oinarriturik, eta lan merkatuak baldintzatu. Bi fenomeno hauek dira gehien nabarmendu behar direnak. Gainerako aldagaiak inguruko herrietan aurkitu dezakegun antzeko egiturak aurkitzen ditugu.

4.6.2. Profilen tipologia proposamen bat

Behin interesgarriak izan daitezkeen aldagaiak aztertuz, eta ikerketaren bidez lortutako datuak kontuan hartuz (elkarrizketen bidez zein datu kuantitatiboen bidez) lau profil ezberdin identifikatu ditzakegu. Esan beharra dago ariketa hau zaugarritasun handiena duten kolektiboak identifikatzeko asmoz egiten dugula, eta batez ere, zaugarritasun hori sortarazten dituen aldagaiak ezagutzeko. Beraz, jakin badakigu kasuistika anitza izan daitekeela eta egungo gizartearen bortizkeria eremu guztietan jo ahal duela. Behin hau esanda, profil ezberdinak ordenean eta bakoitzak bere berezitasunekin jarraiek zehaztuko ditugu:

1. 65 urte baino gehiagoko eta oinarrizko ikasketak dituen bertako emakumea.

Profil hau Gizarte Zerbitzuetan eta DBEren jasotzaileen artean aurkitu dezakegun profilik nagusia da. Getxon kuantitatiboki adierazgarriena izan daitekeen profila izanda, gizartearen zaharkitze prozesuaren eta emakumeak historikoki lan merkatuan izan duen rola ondu dela esan dezakegu.

Batik bat dimentsio ekonomikoan dituzten gabezien ondorioz pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan aurkitzen dira, hau da, zaugarritasun eremu batean biziratuen dute. Esan beharra dago lanean erabilitako iturriak kontuan hartuz, gain ordezkaturako profila izan daitekeela, eta beraz kontuz hartu beharreko profila dela. Hala ere, eta nahiz eta adina zehaztu, baieztatu dezakegu adin tarte guztietan emakumea pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzekoa arrisku handiagoan dagoela.

“Emakumeak pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak gehien pairatzen dituztenak dira hemen. Gainera familia ereduetan sartzen bagara, bereziki guraso bakarreko familietan, gain karga handiena hartze duena emakumea jarraitzen izaten da.” (E 1).

2. 45 urte baino gutxiagoko eta oinarrizko ikasketak (edo ikasketarik ez) dituen emakume atzerritarra.

Bigarren profil hau Getxon kualitatiboki profil adierazgarriena izan daiteke, eta beraz pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arrisku handiena duen profila da. Caritas-en profil nagusia da, eta DBEen zein Gizarte Zerbitzuetan presentzia handia du. Bertako populazioa baina batz besteko adin gazteagoa erakusten dute eta zenbatekoei begira gehiengo latino amerikar jatorria daukate. Aurreko ataletan esan bezala, Getxo lan domestikokoan trakzio izugarria egiten duen lurraldea da.

Lan merkatuan aukera oso mugatuak dituzte, eta batik bat lan domestikora mugatu egiten dira. Beraz, eta nahiz eta gizonezkoen baino langabezia tasa baxuagoak erakutsi lan eremu prekariorenean aritzen dira, erregimen berezi baten barruan. Lan prekarietateari etxebizitza prekarietatea gehitu behar diogu, Caritasen datuak ikusita, argi dago Getxon etxebizitza arazo bat dagoela, eta bereziki atzerritar kolektiboa da prekarietate handiagoa pairatzen duena.

Emakumeak dira, baina atzerritarrak era badira, eta horrek diskriminazio bikoitza dakar. Bizi duten zaugarritasun eta ezegonkortasun egoeraren ondorioz, dimentsio politiko eta sozialak asetzeko zailtasun handiak aurkitzen dituzte.

“Pobrezia eta gizarte bazterketaren profil nagusietan hitz egitean, latino amerikar emakumea, 25 et 45 urte bitartean dagoena eta lan domestikokoan egiten duena lan etortzen zai burura. Ez da gehiengo, baina adierazgarria da oso Getxon. Gainera asko oraindik ez ditugu datuen bidez detektatzen, irregulartasun administratibo osoan daudelako.” (E 2).

3. 35-55 urte bitarteko eta oinarrizko ikasketak dituen bertako gizona.

Profil hau Gizarte Zerbitzuetan eta DBEren jasotzaileen artean aurkitu dezakegun bigarren profilik nagusia da. Bertako emakumeen profila baino batez besteko adin gazteagoa erakusten dute, batik bat 65 urtetik gora agertzen ez direlako. Hau logikoa da adin tarte hauetan gizonezkoa direlako erretiro pentsioak jasotzen duten gehienak.

Dimentsio ekonomikoan dituzten gabezien ondorioz pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden eremuan kokatzen dira. Batez ere, krisia geroztik nagusitu den profila litzateke. Langabezia aldi luzeak pairatzen dituztenak eta beraz lan egonkorra topatzeko zailtasun handiak dituztenak.

4. *40 urte baino gutxiagoko eta oinarrizko ikasketak dituen gizon atzerritarra.*

Orokorrean perfil honen barruan gizonezko latino amerikarrak sartu behar ditugu, kuantitatiboki adierazgarriak diren heinean. Hauek, batez ere 2008ko krisia geroztik, langabezia tasa altuak pilatzen dituzten eta lana topatzeko arazo larriak dituzte. Emakumeen kasuan bezala, langabezia gain, etxebizitza prekaritate handiak pairatzen dituzte. Nahiz eta emakumeekin alderatuz lan merkatu zabalago bat izan (krisia geroztik itxi egin dena), kualifikazio baxuko lan merkatuetara mugatzen dira, hala nola, eraikuntza, ostalaritza edo ta industria.

Kuantitatiboki gutxiago izanda ere, atzerritar jatorria duten zenbait kolektibo prekaritate eta zaugarritasun absolutuan bizi dira. Hauek, batik bat Afrikatik datozenak, lana topatzeko, etxebizitza duina izateko eta gizartearen parte hartzeko arazo larriak dituzte, eta askotan ikusiezinak dira sistemarentzako.

Gutxiago direnez gero, azterketa kuantitatiboetan ez dira adierazgarriak izaten, baina hor daude, auzokideak dira, eta ikusiezinak bihurtzen dira gure gizarteetan. Gainera, adituek dioten moduan euskal gizartearen tolerantzia handiko gizartearen da, baina izaera asimilazionistadun gizartearen da (E 2). Beraz, Latino Ameriketatik datozen atzerritarrek erraztasun handiak topatzen dituzte gure gizarteetan integratzeko gainerako jatorriak baino. Euskal gizartearen daukagun paradigmaren arabera, etorkina da integratu behar dena, eta beraz ura da gizartera egokitu eta moldatu behar dena.

Aurreko sailkapenetik kanpo geratzen diren eta kuantitatiboki gutxiago diren kasu zehatz batzuk nabarmendu behar dira. Horien artean, batez ere gizarte bazterketa handiak pairatzen dutenak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, edo familiak dira.

“Pobreziaren dimentsio transbertsalak direnen artean, osasunak funtzio garrantzitsu bat du gure gizartearen. Edozein motatako “gaitz” duena pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arrisku larriaren egongo da”. (E 4).

Gainera, eta esan bezala, gurea bezalako gizarte familiarista batean, familiarren babesa ez edukitzeak pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko faktore bat bilakatzen da, beste gizarte batzuetan ez bezala. Familiak Ongizate Estatuak asetzen edo ailegatzen ez den lekuak betetzen ditu

“Gehienetan Gizarte Zerbitzuak baino familia da lehenengo zutaberik garrantzitsuena, eta behin familiarren sostengua amaituta gurengana jotzen dute”. (E 1).

Orokorrean, eta laburbilduz, sexu-generoak, jatorria eta ikasketa maila aldagaiek pobrezia eta gizarte bazterketa errealitatean baldintzapen ahalmen handia dutela ondorioztatu dezakegu. Inguruko herriekin alderatuz gero ohartuko gara sexu-generoak eta jatorriak direla Getxoko aldagai bereizgarrienak. Izan ere bigarren proposamena Getxon aurkitu dezakegun profilik bereizgarriena litzateke.


4.7. Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketa, pertzepzioa, neurriak eta politikak.

Lan honen hasieran, eta hipotesiak planteatzerako orduan atala honetan bi zalantzarekin egin genuen topo, lehenengoa Getxok inguruarekin dituen baliabideekin alderatuz, eta kontuan hartuz pobrezia eta gizarte bazterketaren errealitatea, baliabide gehiago edo gutxiago eskainiko ditu behintzat inguruarekin alderatuz? Behin hipotesia definitua, atal honetan zalantza honi irtenbidea ematen saiatuko gara, lehenik eta behin, Getxok fenomeno honen kontra dituen neurrien eta politiken azterketa eginez eta bigarrenik fenomenoaren inguruan aritzen diren testigantzen bidez.

Hasiera batean aurkitutako bigarren zalantza, eta seguruenik Gradu Amaierako Lan baten sarrera izan daitekeena, Getxon, EAEko bostgarren errenta pertsonal altuena duen udalerrian, zer nolako pertzepzioa egongo da pobrezia eta gizarte bazterketa fenomenoaren inguruan? Kontzientzia maila altua edo egoera residual baten modura hartuko da? Hemen erabilitako metodologiaren bidez zaila izango da erantzun bat ematea, baina behintzat interesgarria iruditu zaigu gai hau mahai gainean jartzea fenomeno honen irtenbidea ezin delako bakarrik instituzio publikoen eskuetan utzi, komunitatearen egitekoa ere da auzokideen zaintza eta komunitatearen ongizatea. Beraz, itsu bizi den udalerrri batean inoiz ez da pobrezia zein gizarte bazterketari irtenbide emango.

Bi zalantza hauek argitzeko bidean, Getxok pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko dituen neurri eta politika ezberdinen deskribapenarekin hasiko gara. Eremu ekonomikoan, eta beraz Getxoko Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen diren diru laguntzak, bi atal nagusi ditu, alde batetik aurretik ikusi ditugun *Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL)*, eta bestetik *Aldizkakoak ez diren Udal Laguntzak (AEdUL)*. Bi hauek finantzaketa ezberdinak dituzte, jarraian ikusiko dugun moduan, eta Getxoko bereizgarriak dira, hein handi batean.

23. grafikoa: Getxoko GLLen finantzaketa, 2012-2016 (eurotan)



Iturria: Egileak eginda, Getxoko Gizarte Zerbitzuko datuekin

Getxoko Gizarte Larrialdiko Laguntzak, eta Gizarte Zerbitzuen 2016ko Memoriaren arabera, *aldirokoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, diru-laguntza izaerakoak. Gizarte bazterketako egoerak saihesteko, ekiditeko edo arintzeko beharrezko diren gastu zehatzei (arruntak nahiz apartekoak) aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonentzat dira.* (22.orrialdea).

Hauek, printzipioz, EAEko aurrekontu orokorren kontura egiten dira, eta beraz Eusko Jaurlaritzaren eskumena dira. Hala ere, Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritzatik jasotako aurrekontuari %30 bat gehitzen dio, zehazki 281.927 euro gehiago gehitu zion 2016an Gizarte Larrialdiko Laguntzen aurrekontuari. Ikusi dezakegu azkenengo urteetan nabarmen hasi den laguntza hauen zenbatekoa, bereziki udalak egindako ekarpenaren ondorioz. Hala ere, urtez urte zenbatekoa handitzen doa.

“Ekarpen hauek ez dituzte udalerrri guztiek egiten, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak dira. Getxoko udalak, beste batzuk ez bezala, Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenaz gain urtero ekarpen gehigarri bat egiten du”. (E 1).

Honetaz gainera izaera antzekoa duten *Aldizkakoak ez diren Udal Laguntzak* ditugu, baina kasu honetan udalak %100 finantzatzen dituen prestazio ekonomiko bakarrak dira. Beraz, Getxoko udalaren berezitasun bat da hau, gainontzekoekin alderatuz nabarmendu behar dena. Diru laguntza hauek 2016an 150.226 eurokoa izan ziren, eta zatirik handiena etxebizitza mantentzera bideratu zen (aurretik esan bezala etxebizitzaren auzia Getxon eragin handia dauka). Beraz, eta laburbilduz, Getxoko Gizarte Zerbitzuek *Gizarte bazterketako egoerak saihesteko, ekiditeko edo arintzeko beharrezko diren gastu zehatzei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonentzat* (Ibidem.) baliabide propioak erabiliz 2016an 432.153 euro jarri zituzten diru laguntza ezberdinetan.

“Gizarte Larrialdiko Laguntzaz gain, Getxok berezitasun bat badauka, sistemak kanpo uzten dituen kasuak erantzuteko laguntza propioak ditu, %100an udalaren diruarekin”. (E 1).

Hala ere, nahiz eta Getxok baliabide gehiago bideratu fenomeno hauen kontrako politiketan, adituek enfasi berezia egiten dute behintzat erkidego mailan egin behar den plangintza publikoan. Beharrezkoa ikusten da era zentralizatu batean zuzenutako plangintza batean, baliabideen banaketa orekatuago bat bermatzeko, beti ere, lekuan lekuko bereizgarriak kontuan hartuz,

“Ez du zentzurik udalerrien arteko lehia, bakoitza dituen bereizgarriak kontuan hartuz, plangintza orokor bat martxan jarri behar da”. (E 1).

“Osakidetza jarri dezakegu eredu moduan. Osakidetzaren bitartez lurralde osoaren osasunaren kudeaketa egiten den bitartean, hurbiltasunean oinarritzen den zerbitzu bat ere daukagu, denok dugu anbulatorio bat edo ospitale bat etxetik hurbil. Baina kudeaketa lurralde osoan era zentralizatuan gauzatzen da”. (E 4).

Beraz, ondorioztatu dezakegu Getxoko Udalak Getxok pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko beste herri batzuk baino baliabide gehiago dituela, eta horiek erabiltzen dituela. Nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren kompetentzia izan, Udalak ekarpen propioak ere egiten ditu, diru laguntza hauek kudeatzeaz gainera. Arazoa da horrek desorekak sortzen dituela inguruko herrien artean, ez bait dago era zentralizatuan gizarte zerbitzuak kudeatzen dituen erakunde publikorik.

Pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruko pertzepzioari dagokionez elkarrizketetan oinarritutako informazioak ikuspuntu ezberdinak eskaini digute. Hala ere aurretik esan bezala, zaila da galdera honi erantzun zehatz bat ematen, egia esan denetariko sentsibilitateak daudelako.

Lehenengo ikuspuntua, hurrengo adituak eskaintzen digu:

“Bi errealitateen arteko aldea hain handia izanik (pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzen dutenen eta gainontzekoen artean), ez dagoela benetako pertzepzioa edo ezagutza errealik. Errealitate horren kanpoan bizi da eta ez dago ardura handirik”. (E 3).

Bigarren ikuspuntu bat, baiezkorragoa agian, bigarren aditu batek eskaintzen digu:

“Uste dut Getxon denetik dagoela, AQSren (Avisos, Quejas Y Sugerencias) bitartez jasotzen ditudanak gehienbat preokupazioa dagoenean izaten da, eta beraz horiei irtenbidea emateko idazten dute. Normalean bi zentzutan egiten dute, kexatzen (hau ez da kalean egon behar, eskalei erreferentzia eginez adibidez), edo egoera horietan laguntza eskaintza bat eman beharko genukeela. Beraz, sentsibilizazioa badago. Horretaz aparte mugimendu eta asoziazio asko daude fenomeno honen inguruan lan egiten dutenak.” (E 1)

Azkenengo ikuspuntu bat, atzerritarren kolektiboarekiko pertzepzioan zentratzen dena, baina gainontzeko errealitateei aplikagarria dena:

“Gizarte tolerante baten aurrean gaude, baina izaera asimilazionista duen gizarte baten aurrean. Hau da, nik normaltzat hartzen dudan parametroetan mugitzen zaren heinean, ez dago arazorik izango, parametro horietatik ateratzen denarekin orduan hasiko dira arazoak”. (E 2).

Azkenengo ikuspuntu hau pobrezia errealitateari gehitu ahal diogu, beraz, pobrezia zure eremu pribatuan eramaten duzun bitartean, ez dago arazorik izango. Baina zure pobrezia nire ingurua oztopatzen hasten den momentutik aurrera, arazo bihurtuko zara. Beraz eremu horretan oraindik ere lan asko egiteke daukagu.

“Pobrezia eta gizarte bazterketa eskalearen irudia gaintu egin behar da. Oraindik ere askok pobrezia eskalearekin lotzeko joera dauka, eta ez da ohartzen pobrezia bizitza osoan zehar izan duen auzokidea pairatzen hari dela.” (E 4).

Laburbilduz, esan genezake Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruko pertzepzioa benetan izan beharko zenaren nahiko urrun dagoela. Oraindik ere fenomeno honen gainean daukagun estigma hain handia izanda, eremu pribatuan ahalik eta luzeen mantentzen saiatzen garela. Pobrezia errudun sentimendua dakar batera, eta eremu pribatuan, bakardadean eta askoz jota familian mantentzen dugun errealitatea da.

“Oraindik ere Gizarte Zerbitzuak eta beraz laguntza eskatze hori, orokorrean, estigma handia dakartza. Horregatik Gizarte Zerbitzuetara lehen aldiz heltzen direnak oso egoera larrietan heltzen dira, azken momentu arte ezkutuan mantentzen saiatzen direlako”. (E 1).

5. Ondorioak

Ondorioen atal honetan gure ikerketaren emaitza aipagarrienak azpimarratuko ditugu. Baina hauekin hasi baino lehen lan honek dituen mugak ere komentatuko ditugu. Ondoren, Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko ondorio garrantzitsuenak landu eta herri honek azaltzen dituen bereizgarrietan zentratuko gara.

Lanean izandako *mugarik* garrantzitsuena baliabideak izan dira, izan ere, kontuan hartuz fenomeno honen konplexutasuna ezinezkoa izan da honen dimentsio guztiak era sakon batean lantzea, eta horretan hautuak egin behar izan ditugu. Hautu horietan dimentsio ekonomikoak gailendu dira gainontzeko dimentsioekin alderatuz. Egia da, guk geu kritikatu izan dugula fenomeno honi ematen zaio begirada ekonomizista, baina egia da ere egungo gizarteetan eremu ekonomikoa gainontzeko eremuak harrapatzen dituela, eta beraz lehenengo pauso moduan ezinbestekoa ikusi genuen honetan ahalegin gehiago eskaintzea. Gainera, dimentsio politikoak eta sozialak era egoki batean aztertzeke, geneuzkan baino baliabide gehiago behar direla uste dugu. Etorkizunari begira, dimentsio hauen lanketa oso egokia izango litzateke.

Aurrekoaren ildo berdinetik, metodologikoki ere hautuak egin behar izan ditugu. Getxoko pobrezia buruzko datu zehatzik ez dagoenez, adibidez, pobrezia eta gizarte bazterketa era zuzenean neurtzen ez duten datu sekundarioen ustia ketaren bidez lan egitea erabaki dugu. Honek, lana errazteaz gainera, iturri ezberdinak erabiltzea ahalbidetu digu, azken finean lana aberastuz eta eremu gehiago ezagutuz. Hautu bat baino behar bat izan da, eta Getxon pobrezia eta gizarte bazterketa aztertzeke bide bat ireki dugulakoan gaude.

Izan dugun hirugarren muga, eta seguraski kualitatiboki adierazgarriena izan dena, pobrezia eta gizarte bazterketaren muturrak lanean ez aztertzea izan da. Oraingoan ere hautu baten ondorio izan da. Pobrezia eta gizarte bazterketa “eskalearen” ereduarekin identifikatzea gainditu nahi genuen, egun zaugarritasun eremuan dauden gizabanakoak erabat heterogeneoak direlako eta eremu pribatuan mantentzen den errealitatea delako. Horrekin apurtzeak muturreko errealitateak ez aztertzea suposatzen du, batez ere baliabide faltagatik eta jakinda hauek direla egoera larrienak pairatzen dituzten auzokideak.

Behin lanak izan dituen mugak edo ahulguneak identifikatuta, Getxoko pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruan lortutako *ondorio garrantzitsuenak* plazaratuko ditugu, herriak testuinguruarekin dituen bereizgarriak azpimarratuz.

Lehenengo ondorio nagusia, herri baten egiturazko ezaugarriak herri horren pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan daudenen errealitatea baldintzatzeko ahalmena da. Getxoko kasuan, zenbait egiturazko ezaugarriek hein handi batean baldintzatzen dute herriaren garatutako errealitate honen nolakotasuna. Esan genezake Getxoko *bizitza maila* (batez ere etxebizitzaren prezioa), *egitura produktiboa* (zerbitzuetan oinarrituta eta lana sortzeko ahalmen txikikoa) eta *egitura demografikoa* (zaharkitze prozesu garatua) direla inguruarekin dituen bereizgarri nagusiak eta pobrezia eta gizarte bazterketa fenomenoak baldintzatzen duten hiru egiturazko ezaugarri nagusiak.

Egiturazko ezaugarri hauek, askotan, iragazki moduan funtzionatzen dutela esan genezake, soslai moduan hain zuzen ere. Horrek azaldu dezake zergatik Getxo, Bizkaiko hirugarren nukleoa izanda (demografikoa), pobrezia eta gizarte bazterketaren errealitatea era xumeago batean pairatzen

duen. Marko teorikoan egindako gerturapena berreskuratuz, esan genezake Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruko errealitatea Europako Iparraldeko herriekin antzekotasun handiagoak erakusten dituela (Hegoaldeko Europarekin baino), baina bereziki eta hein handiago batean Getxo bezalako herri batean. Honekin ez gara esaten ari hobeagoa edo txarragoa denik. Izan ere, egiturazkoak diren ezaugarri hauen ondorioz, eta beste ondorio batzuen artean, gizartearen zaharkitze prozesua etengabe hazten doa eta gazteen etengabeko irteera hazkunde negatiboa dakar. Gainera zenbait elkarrizketen bitartez somatu egin dugu etxebizitzaren prezioak, adibidez, eragina duela pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan daudenen kanporatzean, eta beraz, egoera hauek pairatzeko potentzialitate handiena dutenen zati handi bat egiturazko ezaugarri hauek herritik kanporatzen dituzte. Etorkizunerako bi aldagai hauen arteko harreman estua aztertzea oso interesgarria izango litzateke, bereziki Getxon.

Gainera, horrek ez du esan nahi pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzen duten auzokideak ez daudenik, eta hain zuzen ere, lehenengo urratsa Getxoko *auzoen arteko aldeak* aztertzea izan zen, fenomenoaren errealitatea non kokatzen den aztertzeko asmoz. Argi geratu da ateratako emaitzen ondorioz, errealitate guztiz ezberdinak topatu ditzakegula auzoen arabera. Algorta da pobrezia eta gizarte bazterketaren errealitate handiena biltzen duena, eta berriz Neguri eta Andra Mari beste maila batean kokatu beharko genituzke. Bigarren errealitate bat ere esanguratsua litzateke, metroaren ibilbideak bi errealitate bereziten ditu. Bereizketa hau ez du bat egiten bereizketa administratiboarekin, baina askoz esanguratsua da, eta interesgarria izango litzateke etorkizunerantz begira errealitate honen azterketa sakonago bat gauzatzea (azterketa historiko, ekonomiko, sozial, antropologiko ...).

Behin birkokatze geografikoari helduta, Getxok pobrezia eta gizarte bazterketaren eremuan dituen bereizgarrietan sakonduko dugu. Izan ere, erabat hedatuta dagoen fenomeno izanda, ez da testuinguru guztietan era berdinean gauzatzen, eta beraz, Getxok baditu kontuan hartu beharreko bereizgarriak. Horien artean bi aldagai nabarmendu behar ditugu, fenomenoan eragin zuzena dituztenak. *Sexu-generoa* eta *Jatorria*.

Lehenengoari dagokionez, jakina da emakumeak pobrezia eta gizarte bazterketa handiagoa pairatzen dutela, egoera hau ez da berria egungo gizarte patriarkalaren babesean. Baina Getxon, aztertutako datuek esaten digute emakumeen eta gizonezkoen arteko ezberdintasun hau handiagoa dela inguruko herriekin alderatuz gero. Fenomeno honen azalpena bi faktoretan aurkitu dugu: Herriaren zaharkitze prozesua eta immigrazioaren feminizazioa. Alde batetik, zaharkitze prozesuak Getxon duen indarra ikusita, logikoa da ondorioztatzea 65 urtetik gorako kolektiboan emakumeen presentzia handiagoa dela, eta hauek gizartean eta bereziki lan merkatuan izandako rolaren ondorioz, kolektibo zaugarriago bat bihurtzen direla adin tarte honetan. Hala ere, perfil honetan gure lanaren zenbait muga metodologikoekin topatu gaitezke (erabilitako datuek perfil honen gain ordezkapen bat sortu dezaketelako, bereziki DBEren eta Gizarte Zerbitzuen azterketak), eta beraz hurrengo lanetan arreta bereziaz aztertu beharreko eremua izango litzateke.

Bestetik, kontuan izanda Getxoko jatorri atzerritarra dutenen %67a emakumezkoa dela, immigrazioaren feminizazioaz hitz egin dezakegu. Eta beraz, jarraian ikusiko dugunez erabat prekarizatutako kolektibo bat den heinean, pobrezia eta gizarte bazterketaren feminizazioa indartzen dute.

Jatorriari dagokionez, hasieran geneukan laugarren hipotesiaren erdia baino ezin dezakegu baieztatu. Izan ere, eta aztertutako datuen arabera, ez da pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dagoen kolektibo handiena, baina bai berriz zaugarritasun handiena duena. Hau da, populazio osoa hartuz gero, eta atzerritarren eta bertakoen arteko alderaketa absolutu bat eginez, gutxiago izango dira. Baina populazio atzerritarra hartuz gero, ikusiko dugu adibidez, hauen ehuneko handiago bat handiago bat pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan izango da.

Gainera, aditu guztiek defendatzen dute prekaritate handiago bati egin behar diotela aurre, bereziki lanari eta etxebizitzari dagokionez. Beste faktore garrantzitsu bat euren zaugarritasuna azaltzeko babes familiarren gabezia da, edo behintzat solidaritatezko sare baten gabezia. Kasu hauetan, eta baita ere lan prekarioak dituzten bertakoen kasuan, lanak integrazio dinamikak baino “desintegro” dinamikak hedatzen ditu.

Hipotesian ez dugu kontuan hartu, baina Jatorri atzerritarra duten emakumeen papera aztertu ondoren esan genezake Getxoko migrazio eredu, eredu erakargarria bilakatzen dela haientzat. Eredu hau bereziki garrantzitsua da Getxon inguruko herriekin alderatuz gero. Lan domestikora mugatzen den eredu da, horrek dituen prekaritatea kontuan hartuz (Gizarte Segurantzako erregimen berezi batean aritzen bait dira kontratua izanezkerok). Gainera, bi faktorek fenomeno hau indartzen dute : erdiko klaseen beharrak eta gizartearen zaharkitze prozesua, alegia, Getxon nagusitzen diren fenomenoak. Bi fenomeno hauek sortutako beharrak emakumezko etorkinen bidez asebetetzen dira, bereziki latino amerikar emakumezkoak, Ongizate Estatuaren bidez asetu beharrean.

Ondorio orokor moduan, eta laburbilduz, esan daiteke bertakoen ongizate maila mantendu egiten dela etorkinen prekaritatearen kontura, eta hein handiago batean, emakume atzerritarren prekaritatearen kontura.

Profilei dagokionez, hasiera batean kontuan hartu genituen bi aldagaiak (Sexua-generoa eta Jatorria) Getxon berebiziko garrantzia dutela baieztatu ahal izan dugu, baina beste bi gehitu beharko genioke lan honetan sakontzeko aukera izan ez ditugunak. Alde batetik familia eredu eta bestetik osasuna. Hurrengo ikerketei begira, beharrezkoa litzateke familia ereduak eta osasun kategoriak azterketan beran sartzea. Izan ere, azterketan zehar identifikatu ditugun bi aldagai hauek gero eta pobrezia eta gizarte bazterketa dinamikak definitzeko ahalmen handiago bat daukate. Beraz profilei dagokionez fenomeno hau definitzeko ahalmen handiena duten lau aldagai identifikatu ditugu: Sexu-genero (emakumezkoa), jatorria (atzerritarra), familia eredu (guraso bakarrekoak) eta osasuna (“osasuntsu” ereduan ez sartzea). Dinamika hauek orokorrean herri guztietan erreproduzitzen badira ere, uste dugu Getxon bereziki diskriminatuak diren aldagaik direla. Gainera, eta kontuan hartuz gizarte “familiarista” batean oinarritutako eredu nagusitzen dela, familia babesa ez edukitzeak izugarriko zaugarritasun egoeran kokatuko zaitu.

Bukatzeko *pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruko pertzepzioaren* inguruko ideia batzuk nabarmendu nahi ditugu. Zaila da ikerketa honetan erabilitako tresnen bidez horrelako auzi bati erantzun ematea. Hala ere garrantzitsua ikusten genuen gai hau mahi-gaineratzea auzokideen kontzientzia maila aztertzeke asmoz, eta behintzat abiapuntu moduan plazaratzeko.

Ikerketa egin ostean ohartu gara oraindik ere pobrezia eta gizarte bazterketa fenomenoaren eremu pribatuan mantentzeko ahalegin izugarriak egiten direla, erabat estigmatizatutako errealitatea

delako. Horrek fenomenoaren pertzepzioa zaildu egiten du hurbiletik bizitzen ez den bitartean. Egia da erabat aldentutako bi errealitate daudela(ongizate maila altua eta zaugarritasun eremuan daudenen artean), baina ikuspegi dikotomiko honek ez du benetako errealitatea islatzen. Fenomeno hau pairatzen duten gehienak erdibide batean kokatzen dira, eta eremu pribatua mantentzeak eragiten du ikusiezina bihurtzea, eta ondorioz arazoa bikoiztea. Uste dugu hori gainditu beharreko eredu bat dela, eta horrekin batera fenomeno honen estigmatorekin bukatzea. Izan ere, pobrezia errudun sentimendua dakar, eta eremu pribatua, bakardadean eta askoz jota familian mantentzen dugun errealitatea izateari utzi behar dio.

Pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako borroka ez da instituzio publikoen eskuetan utzi beharreko asuntoa. Komunitatearen partaideen zeregina da komunitate beraren zaintza, eta mota hauetako errealitateak eremu pribatua mugatzen diren bitartean, horrek suposatzen duen estigmatorekin, ezinezkoa izango da honi aurre egitea. Itsu bizi den gizarte batean ezinezkoa izango da horrelako errealitateak behingoz gainditzea.

Bibliografia

ALS group (2015): *Población en riesgo de pobreza en España pueblo a pueblo*. AIS Group, hemen eskuragarria: <https://www.ais-int.com/la-pobreza-pueblo-pueblo-datos-2015-habits-municipios/>

Atkinson, Anthony B. (1987): *La pobreza*. Cuadernos de apoyo a la docencia 40. Zk. Colección de lecturas económicas. Mexiko: UNAM-FE.

Autes, Michel (2004): *Tres formas de desligaduras*. hurrengoan Karsz, Saül (koord.) (2004): *La exclusión: bordeando sus fronteras: definiciones y matices*. Barcelona: Gedisa.

Cáritas (2017): *Memoria de Cáritas Getxo del 2016*. Getxo: Cáritas.

Castel, Robert (1992): *De la exclusión como estado a la vulnerabilidad como proceso*. Archipiélago aldizkaria, 21. zk.

_____ (1997): *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*. Buenos Aires: Paidós.

_____ (2004): *La inseguridad social. ¿Qué es estar desprotegido?*. Buenos Aires: Manantial.

EAPN (European Anty-Poverty network): *El estado de la pobreza. Seguimiento del indicador de riesgo de pobreza y exclusión social en España 2008-2016*. Madrid: EAPN España.

Europako Batzordea (2003). *Informe conjunto sobre la inclusión social en el que se resumen los resultados del examen de los planes nacionales de acción a favor de la inclusión social (2003-2005)*. Bruselas: COM

_____ (2010): *EUROPA 2020. Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador*. Bruselas: COM.

_____ (2013). *Resumen de los avances en la aplicación de las recomendaciones específicas por países por Estado miembro: Documento de trabajo de los servicios de la Comisión que acompaña al Estudio Prospectivo Anual sobre el Crecimiento para 2014*. Bruselas: COM

Eurostat (2016): *People at risk of poverty or social exclusion*. Eurostat [Online], eskuragarri hemen: http://ec.europa.eu/eurostat/statisticsexplained/index.php/People_at_risk_of_poverty_or_social_exclusion

Eusko Jaurlaritza (2009): *Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta, 2008*. Enplegua eta Gizarte Politikak: Vitoria-Gasteiz.

_____ (2013): *Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta, 2012*. Enplegua eta Gizarte Politikak: Vitoria-Gasteiz.

_____ (2017): *Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta, 2016*. Enplegua eta Gizarte Politikak: Vitoria-Gasteiz.

EUSTAT (Euskal Estadistika Erakundea) (2015): *Getxoko datu estadistikoak*. EUSTAT [Online], eskuragarri hemen: http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/getxo.html.

_____ (2016): *Getxoko datu estadistikoak*. EUSTAT [Online], eskuragarri hemen: http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/getxo.html

Esping-Andersen, Gosta (1993): *Los tres mundos del Estado del Bienestar*. Valencia: Edicions Alfons el Magnànim-IVEI.

Esteban, M. L. (2009): *El feminismo como teoría práctica. El concepto de género*. Vitoria-Gasteiz: Gizarte langintza II. Jardunaldiak.

Faura-Martínez, Úrsula; Lafuente-Lechuga, Matilde y García-Luque, Olga (2016). *Riesgo de pobreza o exclusión social: evolución durante la crisis y perspectiva territorial*. Revista Española de Investigaciones Sociológicas, 156. Zk.: 59-76. Madril.

García Laso, Agustin (2003). *El concepto de exclusión social*. Hurrengoan VVAA, Análisis económico de la exclusión social. Madril: Consejo Económico y Social.

Getxoko Udala (2009): *Gizarte Zerbitzuak. 2008ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala.

_____ (2010): *Gizarte Zerbitzuak. 2009ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2011): *Gizarte Zerbitzuak. 2010ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2012): *Gizarte Zerbitzuak. 2011ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2013): *Gizarte Zerbitzuak. 2012ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2014): *Gizarte Zerbitzuak. 2013ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2015a): *Gizarte Zerbitzuak. 2014ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2015b): *Atzerritar jatorrizko pertsonak Getxon: 2015esko integrazioaren adierazlea*. Getxo: Ikuspegi.

_____ (2016): *Gizarte Zerbitzuak. 2015ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2017a): *Gizarte Zerbitzuak. 2016ko txostena*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2017b): *Jatorri atzerritarreko pertsonak Getxon 2016an*. Getxo: Getxoko Udala

_____ (2017c): *Getxoko 2016ko txosten sozioekonomikoa*. Getxo: Getxoko Udala

INE (Instituto Nacional de Estadística) (2016): *Encuesta de Condiciones de Vida, 2016*. INE [Online], eskuragarria hemen: http://www.ine.es/dyngs/INEbase/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176807&menu=resultados&secc=1254736194793&idp=1254735976608

Kangas, Olli and Ritakallio, Veli-Matti (2007): *Relative to what? Cross National Picture of European Poverty Measured by Regional, National and European Standards*. Working paper 384. Zk. Luxemburgo: Luxembourg Income Study.

Katz, Michael B. (1993): *The underclass Debate*. Princeton: Princeton University Press.

Lanbide (Ikerketak eta Estadistikak)(2014): *2014. urteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak, udalerraren arabera*. Lanbide [Online], Eskuragarria hemen: http://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estatistikak/#stats6_clStats

_____ (2015): *2015. urteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak, udalerrriaren arabera*. Lanbide [Online], Eskuragarria hemen: http://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estadistikak/#stats6_clStats

_____ (2016): *2016. urteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak, udalerrriaren arabera*. Lanbide [Online], Eskuragarria hemen: http://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estadistikak/#stats6_clStats

_____ (2017): *2017. urteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak, udalerrriaren arabera*. Lanbide [Online], Eskuragarria hemen: http://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estadistikak/#stats6_clStats

_____ (2018a): *2018. urteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak, udalerrriaren arabera*. Lanbide [Online], Eskuragarria hemen: http://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estadistikak/#stats6_clStats

_____ (2018b): *Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunen perfila auzoaren arabera 2018*. Lanbide [Online], Eskuragarria hemen: http://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estadistikak/#stats6_clStats

Laparra, Miguel (2001): *Una perspectiva de conjunto sobre el espacio social de la exclusión*. Madril: CSIC Politeya.

_____ (2010). *El impacto de la crisis en la cohesión social o el surf de los hogares españoles en el modelo de integración de la sociedad líquida*. Documentación Social, 158. Zk.: 97-130.

Laparra, Miguel eta Aguilar, Manuel (1999): *Tendencias de exclusión y las políticas de integración en España*. Hurrengoan Tezanoz, Jose Felix (Ed.): *Tendencias en desigualdad y exclusión social*. Madrid: Sistema.

Laparra, Miguel eta besteak (2007). *Una propuesta de consenso sobre el concepto de exclusión. Implicaciones metodológicas*. Revista Española del Tercer Sector 5. zk.: Madril

Malthus, Thomas (1846): *Ensayo sobre el principio de la población*. Madril. Alianza.

Marshall, Thomas H. (1949): *Ciudadanía y Clase social*. Madril: Alianza.

Moreno, Gorka (2008): *Crisis y reconstrucción del Estado de Bienestar. Las posibilidades de la Renta Básica de Ciudadanía*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Nolan, Brian eta Whelan, Christopher (2011): *The EU 2020 Poverty Target*. Gini Discussion Paper 19. Lib. Amsterdam: AIAS.

Pressat, Roland (1977). *Introducción a la demografía*. Barcelona: Ariel.

Rowntree, Seebohm (1908). *poverty: a study of town life*. Londres: Macmillan.

Silver, H. (1994): *Exclusión social y solidaridad social: tres paradigmas*. 113. lib. 5-6. Zk. Madril: revista Internacional del Trabajo.

Subirats, Joan (zuz.) eta besteak (2004). *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*. Bartzelona: Fundación "La Caixa".

_____ (zuz.) (2006): *Fragilidades Vecinas. Narraciones biográficas de exclusión social urbana*. Bartzelona: Icaria.

Tezanos, Jose Felix (1998): *Tendencias de dualización y exclusión social en las sociedades avanzadas. Un marco para el análisis*. Textos de sociología, 4. Zk. Madrid: UNED.

_____ (2004): *La sociedad dividida. Estructura de clases y desigualdades en las sociedades tecnológicas*. Madril: Biblioteca Nueva.

Townsend, (1979). *The development of research on poverty*. The definition and measurement of poverty aldizkarian: Londres.

Ward, Terry eta Ozdemir, Erhan (2013): *Measuring Low Work Intensity: An Analysis of the Indicator*. ImPRovE Working Paper, 13. Lib. 9. Zk. Bruselas.

Eranskinak

Elkarrizketatuak:

1. (E 1). *Mikel Kerexeta*. Getxoko Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
2. (E 2). *Ekain Larrinaga*. Getxoko Immigrazio teknikaria.
3. (E 3). *Paco Castells*. Getxoko Cáritas-en koordinatzailea.
4. (E 4). *Alfonso Lopez*. EAPN Euskadiko koordinatzailea.

Erabilitako gidoia (hala ere, elkarrizketa garatzen zihoan bitartean gidoia ere moldatzen zen):

1. Bizkaiko pobrezia eta gizarte bazterketa. Sarrera
 - *Fenomeno honen ezaugarri orokorrak*
 - *Fenomenoaren nondik norakoak, inguruarekin izan ditzakeen **bereizgarriak***
 - *Tamainez, handia txikia... beti ere testuinguruarekin alderatuz*
 - *Lanak, egun, integrazioa bermatzen du?*
 - *Lana topatzeko zailtasunak*
 - *Gizarte harremanak kolokan jartzen dira egoera hauetan?*
 - *Familiaren babesa*
 - *Gazteak?*
2. Bizkaian/Getxon pobrezia eta gizarte bazterkeria pairatzen dutenen profila...
 - *Zein da, zure ustez, Getxoko pobreziaaren profila? Baldin badago*
 - *Emakume, atzeritarra eta gaztea?*
 - *Hiru aldagai hauek presente eduki behar dira?*
 - *Beste batzuk ere kontuan hartu behar dira?*
 - *Fenomeno heterogeneotasuna da?*
 - *Inguruko lurraldeekin alderatuz? Gehiago/gutxiago, Bizi baldintzak hobetoagoak'?*
3. Biztanleriaren artean dauden alde sozioekonomikoak...
 - *Ezberdintasun handiak?*
 - *Pobreak pobreak eta aberatsak aberatsagoak?*
 - *Erdiko klasearen hedapena edo suntsiketa: Erdiko klasetik datorren pobreak al daude Getxon?*
 - *Inguruko lurraldeekin alderatuz, gizarte berdintsuago bat?*
4. Errealitate sozio-ekonomikoak inguruko herri zein EAerekin alderaketa...
 - *Getxoko lan merkatuaren ezaugarriak (edo biztanleena)*
 - *Ingurukoak, ezker aldea, EAE..*
 - *Garestiagoa da bizitza, eragina du?*
 - *Etxebizitza, erosketak, baliabideak ...*
 - *Goi mailako pertsonak baino ez dira etortzen bizitzera/erakargarria da Getxo baliabide handiak ez dituztenentzat?*
5. Krisi ekonomikoak, 2008tik aurrera, izan duen eragina...
 - *Fenomenoaren tamaina*
 - *Profilen eraldaketa bat gertatu da? Pertsona heterogeneoagoak agian*
 - *Ezberdintasunak handitu egin dira?*
 - *Inguruarekin alderatuz?*
 - *Zaurgarritasuna handitu egin da*

- *Immigranteen fluxua aldatu egin da?*
 - *Haien egoera..*
- 6. Generoaren araberako pobrezia eta bazterketa egoera...
 - *Generoak badu zer esanik?*
 - *Emakume gehiago, gutxiago, egoera okerrakoak...*
 - *Zailtasun handiagoak?*
- 7. Pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko dituen neurri eta politikak...
 - *Zeintzuk dira hauen kontrako politika nagusiak?*
 - *Udalaren eskumenak...*
 - *Zein mailetan kooperatzen da (lokala, autonomikoa, europarra...)*
 -
 - *Inguruarekin alderatuz, baliabide gehiago ditu..*
 - *Baliabide gehiago erabiltzen dira?*
 - *Baliabide gutxiago?*
 - *Getxon esaten dute eurek ez dituztela etxerik gabeko pertsonak eta horregatik ez dituztela baliabideak jartzen talde honentzat. Beste udaletxeek aldiz, esaten dute ez dutenez ezer egiten Getxoko etxerik gabekoak beste herri batzuetara (bilbora) joaten direla.*
- 8. Hiritarrek pobrezia eta bazterkeriaren inguruko pertzepzioa...
 - *Zer nolako pertzeptzioa dago pobrezia eta gizarte bazterketaren inguruan*
 - *Egoera residuala baino ez da?*
 - *“getxon ez dago pobreziarik” esaldiaren aurrean zer erantzungo zenuke?*
 - *Posiblea da gizartearen gaitz honekin bukatzea*